

# puntuatua



## TELEFONOAREN HASTAPENAK

DEBAGOIENERA,  
HERRITARRENDAKO,  
GERRA OSTEAN  
HELDU ZEN



## PUNTUA 192

2019-05-10 EGUBAKOITZA

### Azaleko argazkia:

Telefonikako artxibo historikoa.

Gipuzkoako telefono zentrala,  
1920ko hamarkadan.

## Aurkibidea

- 4 **Bat-batean** Beñat Sarasola
  - 6 **Irudiz** Pako, Pakiño, Patxi...
  - 8 **Mundutik** Irlanda: Easter Sunday / Aberri Eguna
  - 10 **Erreportajea** Telefonoa berandu heldu zen bailarara
  - 20 **Elkarrizketa** Iñaki Zabaleta, Kazetaritzako katedraduna
  - 24 **Osasuna** Desodoranteak
  - 26 **Kirola** Hegoafrikako uretan igerian
  - 28 **Adituen esanetan** Animaliak ikerkuntzan
  - 30 **Otorduan** Tartufo jatetxea: askotariko entsaladak
  - 32 **Moda** Tantoak
  - 34 **Motorra** Asier Blazquez, moto-kros gidaria
  - 36 **Gure artistak** Sergio Crespo arrasatearra
  - 38 **Kultura** Daniel Garcia Valero argazkilaria eta liburu-jartzailea
  - 40 **Liburu artean** *Goragalea*
  - 42 **Gure altxorak** Eskoriatza: Elorreta errota
- 45 **Gadgetmania**
  - 46 **Handitzen, handitzen** Eskulana: *Zintzilikarioa itsasoak utzitako egurrekin*
  - 47 **Jaioberriak**

### IRITZIA

- 3 **Nire txanda** Nagore Ipiña *Munduaren narratiba berriaren bila*
- 16 **Hainbat aburu** Aintzane Irizar *Ez zaude gonbidatuta*
- 16 **Eztabaida** Drone bidezko banaketak
- 17 **Xixili** Helena Azkarragaurizar
- 17 **Errematea** Gotzon Iparragirre *Jaso ala lortu?*
- 18 **Talaiatik** Iñaki Barrutia Arregi *Udal-hauteskunderen mozorroen dantza*
- 44 **Komunikazioa** Jon Irizar *Komunikazio politikoaz*

puntua

goiena  
KOMUNIKAZIO TALDEA

TOKIKOM

### Argitaratzailea

Goiena Komunikazio Taldea  
Kooperatiba Elkartea  
Otalora Lizentziaduna 31  
20500 ARRASATE

### Lehendakaria

Aitor Izagirre

### Zuzendari nagusia

Iban Arantzabal

### Zuzendaria

Eneko Azkarate

### Erredaktore burua

Monika Belastegi

### Diseinu arduraduna

Iñaki Iturbe

### Hizkuntza arduraduna

Sergio Azkarate

### Publizitate arduraduna

Mireia Larrañaga

### Kluba eta banaketa

Igone Osinaga

### Maketazioa

Iñaki Iturbe, Aitor Lagoma

### Publizitatea

Mireia Larrañaga,

Ziortza Martin,

Amaia Mundifiano

### Administrazioa

Agurtzane Gaintzarain,

Ane Berezibar,

Iratxe Bengoa

### EGOITZA NAGUSIA

Arrasate 20500

Otalora Lizentziaduna 31

132 posta-kutxa

Tel.: 943-25 05 05

Faxa: 943-25 05 00

berriak@goiena.eus

### PUBLIZITATEA

Arrasate 20500

Otalora Lizentziaduna 31

Tel.: 943-25 05 05

Faxa: 943-25 05 00

publi@goiena.eus

### HARPIDETZA

Arrasate 20500

Otalora Lizentziaduna 31

Tel.: 943-25 05 05

harpidetza@goiena.eus

### Lege Gordailua:

SS-1509-2014

ISSN: 2443-9738

Tirada: 4.100 ale



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak  
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia

# Munduaren narratiba berriaren bila



NAGORE IPIÑA

**E**tengabeko berrikuntzak ez gaitu asetzen, baina berrikuntzaren saturazioak desbideratzen gaitu. Alertan gaude. Etengabe. Zaharrari nostalgia eta berriari beldurra diogu. Berrikuntzaren aurrean desorientatuta sentitzen gara askotan: zer, nola, zergatik edo zergatik ez?

Berrikuntza berriaren aurkikuntza da. Badirudi, konturatu gabe, etengabeko aurkikuntzen garaian sartu garela. Obsoleszentziaren aroan; berria zahar. Batzuentzat arriskua eta beste batzuentzat aukera. Arriskua edo aukera deitu, argi dagoena da datozen berrikuntzek edo aurkikuntzek izango dituztela erronka handiak; disrupzio –eta ondorioz, eten– teknologikoa eta kolapso ekologikoa, adibidez. Erronkei erantzungo diegu, modu batean edo beste batean. Zalantzarik ez dut. Badirudi, ordea, berrikuntzak dakarren aldaketa –edo aldaketak– ulertzeko munduaren narratiba berria ere sortu beharko dugula. Berrikuntzaren narratiba deituko diogu; zer iruditzen?

Infoteknologiaren eta bioteknologiaren iraultza paraleloak ditugu ate joka. Berrikuntzaren berrikuntza diote. Eta gu –gizartea– gaude begira; beldurrez eta nostalgiaz begira, narratiba berria sortzeko esperoan. Baina hasiko gara idazten, laster. Izan ere, adimen artifizialak, *big data*-k eta algoritmoek munduaren istorio eguneratua sortzera behartuko gaituzte; zaila izango delako mundua ulertzea narratiba zaharrekin. Gainera, datozen hamarkadetan, bioteknologiak eta infoteknologiak gure barneko mundua manipulatzen eta berregituratzeko ahalmena emango digute, eta orduan idatziko ditugu narratiba berriaren lehenengo kapituluak.

Eszenatoki bio/info-teknologiko horretan espiritualitatearen bila ibiliko omen gara; eredu sozial, emozional eta politiko berrien formulazio bila. Berrikuntza, beraz, teknologikoa ez ezik, antropologikoa eta ontologikoa ere izango da; eta ondorioz, mundu berriaren narratibak kontuan hartu beharko ditu aldagai ugari. Ez da, ez lineala, ez sinplea izango; konplexua izango da... Etengabeko berrikuntzaren istorio amaigabea idazten hastera goaz... ■

**DATOZEN  
BERRIKUNTZEK EDO  
AURKIKUNTZEK  
ERRONKA HANDIAK  
IZANGO DITUZTE**

# Beñat Sarasola

---

## TXOMIN MADINA

ARGAZKIA: ARANTZA SANTESTEBAN

---

Aurretik poesia oinarri zuten bi liburu argitaratu ostean, 1984an jaiotako donostiarrak bere lehen eleberria kaleratu du: *Deklaratzekorik ez*.

### **Badira zenbait aste liburua kalean dela. Aspertu zara "zertaz doa?" galderari erantzuteaz?**

Denbora dezente ematen duzu nobela osatzen, eta hasieran zaila egiten zitzaidan hiruzpalau esalditan laburtzea. Elkarrizketak erantzun heinean, banabil erantzun estandar bat izaten; ez errepikatzea da orain arazoa. Iragan gatazkatsua izandako pertsona baten ibilbidea kontatzen da: iragana 90eko hamarkada hasieran kokatua eta oraina 2009an. Bi garaien arteko kontrastea azaltzen da: bai maila ideologiko, sozial eta politikoan, eta baita maila pertsonal eta afektiboan ere. Badu trama poliziala ere.

### **Nobela hastea, garatzea edo bukatzea kostatu zaizu gehien? Hastea. Idazten hasi aurretik, urteak eman nituen ikuspuntuak-eta buruan mamitzen; idazten baino denbora gehiago emango nuen horretan. Tonua aurkitzea kosta egin zitzaidan hasieran; gutxienez, hiru hasiera idatzi nituen gustukoa topatzeko; gero, eroso sentitu naiz.**

**Nolakoa izan zen liburua inprentara bidali zen eguna?** Edizio fasea ere ez zen samurra izan: azken minutura arte testua berrikusi, aldaketak egin... Niri, gogorra egin zitzaidan. Inprentara bidali eta egindakoak erremediorik ez zegoela ikusita, lasaitua hartu nuen.

### **Nobelaren zati bat umea zineneko Donostian kokatzen da. Zelakoa izan da atzera itzultzea, baina heldua izanda?**

Gertu samar izandako bizipen batzuk kontatzen ditut; ez nireak, baina bai inguruan ikusitako sentsazio eta burutazioak. Eta urte gutxi pasatu arren egoera asko aldatu bada ere, nahiko bizi nituen horiek. Saiatu naiz garai hartako azaleko xehetasunetan ez sakontzen; askotan, iraganari buruz idaztean, norberaren nostalgiatik idazteko arriskua dago, eta nik ez nuen halakorik nahi. Hori izan da garai hartakoez idaztean zailtasun handiena.

### **Zu bezala literatur kritikaria den bat zenbat urduritzen da bere lana besteek epaituko dutela jakinda?**

Ahalik eta kiroltasunik handienarekin hartzen saiatu naiz, badakit-eta lan hori zaila dela. Lotsatu ere egin naiz batzuetan: hamar urtez libururik atera gabe egonda, inpresioa izan dut egun, sare sozialetan-eta badagoela jendearengan iritzia emateko urgentzia bat. Hori nabari dut nire inguruan, eta horrekin lotsatu naiz, badirudielako jendea behartu egiten duzula iritzia ematera.

### **Dena guk nahi dugunean eta dena berehala nahi izaten dugun garaiotan, zein leku du gozatzeko orduak eskatzen dituen literaturak?**

Egungo galderetako bat da, aisialdirako ohiturak asko aldatzen ari direlako, eta literaturari ere eragiten diolako. Nire zorionerako, topatu ditut irakurle adinkideak, eta baita gazteagoak ere, gozatuaz irakurri dutenak. Egun, daramagun bizimoduarekin, gero eta zailagoak ditu gauzak arnas luzeko literaturak, eta horretan borrokatu egin behar dugu alde guztietatik.

### **Zein izan da gehien markatu zaituen liburua?**

Albert Camusen *Arrotza*. Eserialdi batean irakurri nuen, 16-17 urterekin, eta konturatu nintzen ez zela istorio baten kontaketa soila; sakontasun bat zuela eta bestelako gauzez ere hitz egiten zuela. Hor hartu nuen kontzientzia literarioa, eta hortik aurrera bide berri bat ireki zidan.

### **2016tik 2017ra, Sautrela saioa aurkeztu zenuen. Esperientzia isolatua ala jarraitzea gustatuko litzazukeena?**

Ezustean gertatu zen: gidoilari ibili nintzen saioan bi urtez, eta Hasier Etxeberriaren gaixotasunaren ondorioz hasi nintzen aurkezten. Urtea bete eta aurrera jarraitzeko baldintza asko egokiak ez zirela ikusita, uztea erabaki nuen. Hor dago esperientzia, baina, momentuz, ez dut halako proiektuetan sartzeko nahirik.

### **Zein zerikusi dute literaturak eta garai batean, behintzat, hain gustuko zenuen saskibaloiak?**

Inoiz pentsatu dut literaturara eraman nitzakeela saskibaloian jokalaria eta entrenatzaile moduan bizitakoak, baina, momentuz, ez dut nire bizitzako atal horiek uztartzeko modurik aurkitu. ■■■





# Pako, Pakiño, Patxi...

---

**ARGAZKIA:** XABIER REZABAL

---

**TESTUA:** MIREIA BIKUÑA

---

Ezizen horiekin da ezaguna. Joaten den tokiaren arabera: Euskal Herria, Galizia... Urtean birritan joaten da Oñatira, hango lagunak bisitatzera. Bere bizikletarekin. Hori du eguneroko bidaia-lagun eta lagun-min azken 42 urteetan. "La burra" deitzen dio hark. Eskean lortzen duen dirua eguneroko jardueretarako eta bizikletaren konponketak egiteko erabiltzen du. 18 urte zituenetik kalean bizi izan da Patxi. Gurasoak galdu zituenean, mundu ilunean murgildu zen. Drogazale eta ludopata amorratua izan da urte askoan. Adikzio horiek gainditu egin zituen. "Ez du bizitza erraza izan; baina, urteen poderioz, kalean bizi izateko trikimailu guztiak ikasi ditu", dio haren lagun batek. Maiatzaren 17an, 60 urte beteko ditu, eta, beste urte batez, kalean ospatu beharko du. ■■■





# Easter Sunday / Aberri Eguna

IRLANDA



**IÑAKI IRIGOIEN**

ARGAZKIA: A RYAN (FLICKR)

1916an, Irlanda katoliko eta okupatuan, Aste Santuko domekan, altxamendu bat izan zen Britainia Handiaren kontra, eta beste bat egitea ez litzateke harritzekoa izango. Irlandako folklorean harrotasunez gogoratzen da belaunaldi guztiak altxatu egin zirela indar okupatzaileen kontra. Hori dela eta, XX. mendeko lehenengo urteetan, *tradizio* horrek jarraitu egin zuen, eta altxamendua antolatu zuten garai hartako munduko armada indartsuenaren kontra. Arma gutxi eta antolakuntza kaxkarra gutxi ez, eta zatiketak zeuden euren artean. Horren ondorioz, altxamenduaren ondorioa ez zen Irlandaren askatasuna izan, eta ez da harritzekoa hori. Hala ere, mugimendu bat sortu zen, gerora etorriko zen independentziaren aldeko borroka indartzeko.

Gainera, Irlandan bakarrik ez, 1916ko altxamenduak mundu osoan eduki zuen oihartzuna, baita Euskal Herrian ere.

Orain dela 26 urte irakurri nuen Txalapartaren liburua, *Por la libertad vasca*, Irlandaranzko bidea hartu baino hilabete pare bat lehenago. Liburu harekin ikasi nuen Eli Gallastegi *Gudari*-ren ideia izan zela lehenengo Aberri Eguna. Neguko ekinozioren ostean, igandea tokatzen zen

lehenengo ilargi betearekin, hau da, Aste Santuko igandea, Irlandako matxinatuen omenezko eguna ere badena.

Urtero moduan, aurten ere ospatu dute egun hau, noski. Modu batean, hau izan da maiatzaren 24ko udal eta Europa Parlamenturako hauteskundeen hasiera ez ofiziala –Irlandako Errepublikan bakarrik egingo dituzte udal hauteskundeak, iparraldeko sei konderrietan ez–. Orain arte, *brexit*-a dela eta, hauteskundeak errepublikan izan behar ziren bakarrik, baina Erresuma Batua oraindik Europar Batasunaren erdi barruan erdi kanpoan dagoenez, "erdi-parte hartu" egingo dute, eta horrek hainbat arazo dakartza. Izan ere, hasiera batean, Irlandako iparraldeko konderriak Europako parlamentaririk gabe gelditzear daude, eta Irlandako Errepublika bi parlamentari gehiagorekin. Orain, iparraldean egingo dituzte hauteskundeak, baina, hilabete batzuen buruan, aukeratutako parlamentariak langabezia geldituko dira, seguruenik, eta

**IRLANDAN BAKARRIK  
EZ, 1916KO  
ALTXAMENDUAK  
MUNDU OSOAN IZAN  
ZUEN OIHARTZUNA**



hegoaldean aukeratuko ez dituzten bi hautagaik prest egon beharko dute lanbidea laga eta Parlamentura joateko.

## **Lyra Mckee**

Baina, noski, artikulu hau prestatzen nengoenean, egoera goitik behera aldatu da, eta mundu mailako albiste izan den tiroketa Derryn gertatu da. Lyra Mckee kazetaria, LGTBI kolektiboaren aldeko aktibista, idazlea eta abar askoko 29 urteko belfastarra, hil egin zuten apirilaren 18an. Irlanda





1916ko altxamenduaren omenez Aste Santuan egiten duten ekitaldietako bat.

iparraldean, garai batean, horrelako albisteak sarri izaten ziren, baina aspaldi honetan gutxitan gertatzen dira. Hori dela eta, benetako harriduraz hartu dute albistea, bai iparraldean, bai hegoaldean.

#### **Kutzazainetako lapurretak**

Gaiz erabat aldatuko dut orain. Irlandar erara egindako kutxazainen lapurretak. Hau ez da berria. Irlandako gatazka garaietan behin baino gehiagotan gertatutako zerbait da, baina orain, asteroko

gertakizun bihurtu da. *Modus operandi* bera da beti: gertu dagoen obra batean hondeatzaile bat lapuritzen dute eta kaletik behera gidatu, kutxazainen bat dagoen lekuraino. Kutzazainaren

**'POR LA LIBERTAD  
VASCA'-REKIN IKASI  
NUEN 'GUDARI'-REN  
IDEIA IZAN ZELA LEHEN  
ABERRI EGUNA**

kontra talka egin, eta paretatik ateratzen dute. Gero, kamioi baten gainera igo, eta ospa egiten dute. Azkenik, su ematen diote hondeatzaileari, probak ezkutatzeko. Normalean, bost minututan egiten dute lapurreta eta herri txikiak aukeratzen dituzte. Poliziak beste herri batetik etorri behar duenez, iritsi orduko, lapurrak aspaldi joanda daude. Lapurreta hauek Irlandako iparraldean eta hegoaldean egiten dituzte, eta lapurrak gero eta "hobeak" dira. ■■■

# Telefonoa berandu heldu zen bailarara

Telefonoak EAEn izan zuen hastapen eta garapenari buruzko ikerketa egiten ari da Begoña Villanueva bilbotarra. Ikerketa horretan, Debagoieneko egoera ulertzea eta ikertzea ezinbestekoa dela dio ikertzaileak. Gainera, telefonisten lana eta izan zuten garrantzia "ez ahaztea" da Villanuevaren helburuetako bat.

Testua: **Josu Bilbao.**  
Argazkiak: **Telefonicako artxiboa eta Goiena.**

**T**elefonoaren hasierako urteetara salto egitea ez da erraza, hastapen haietan telekomunikazioari buruzko informazio gutxi dago-eta gure inguruan. Gutxi ikertu da, eta datu eta informazio asko ahanzturan gelditu da. Datu eta informazio horiek batzeko, lan erraldoia egiten ari da telekomunikazioak ikertzen dituen EHUko ikertzaile eta soziologo Begoña Villanueva bilbotarrak.

Duela urte batzuk, Sancho El Sabio fundazioaren beka bat irabazi zuen, eta Euskadiko telekomunikazioen historia lantzea proposatu zuen. "Azken finean, datu base bat egitea da helburua, artxibo guztiak kontuan hartuta", azaldu du bizkaitarrak. Bere tesia, bestalde, *Telefonoaren Garapena EAEn 1936 urtera arte* izango da. Horrela, Debagoiengan zehar ibili da azken hilabeteetan informazioa biltzen.

"Martxoan ekin nion Debagoieneko aldea ikertzeari. Bergaran izan nintzen, Laboratoriumeko Rosa Errazkinekin batera, eta Aretxabaletako eta Arrasateko artxiboetan ere izan naiz. Bestalde, Bilbon dagoen Sabino Arana fundazioko egoitzan Gipuzkoako akta guztiak dituzte bilduta, eta bertan ere hainbat bitxikeria aurkitu ditut. Hori bai, lan izugarria izan da, 1981era arteko dokumentu guztiak begiratu behar izan ditut eta", dio Villanuevak.


## Debagoiena, kasu berezia

Noiz eta nola heldu zen telefono sarea Debagoienera? Bailarak izan duen pisu industrialak kontuan hartuta hori ikertzea ezinbestekoa

11. orrialdean, Gipuzkoako telefonistak lanean, 1920ko hamarkadan.







Goiko argazkian, Donostiako zentralean, inaugurazio ekitaldia.

13. orrialdeko irudian, telefonistak lanean, Donostian.

dela dio Villanuevak: "Ezaugarri bereziak ditu Debagoienak telekomunikazioen historiaren zati honetan. Betiere, industriarekin lotu behar dugu telefonoaren garapena. Horrela, Bizkaitik gertuen dagoen eskualdea da zuona, eta iragan industrial eta historia industrial oso aberatsa duena, gainera. Union Cerrajera eta Mondragon edota bertako kooperatibak dira adibide argiak. Ezaugarri horiek kontuan izanik eskualdeko ikerketa bat egitea oso interesgarria litzateke, gainera, estatu mailan egingo den

bakarra izango delako".

Horrela, telefonoaren garapena ulertzeko, kontuan hartu behar da estatu osoan telefono automatikoa izan zuen lehenengo hiria eta eskualdea Donostia eta Gipuzkoa izan zirela. "Bitxikeria moduan, duela gutxira arte, Donostia telefono automatikoa izan zuen lehen hiria edo tokia izan zela uste genuen. Baina Lleidako herri bat izan zen lehena. Gizon aberats batek herritar guztientzat jarri zuen telefonoa, bere etxean zentral txiki bat jarri zuen eta. Baina hori bitxikeria izan zen, eta Donostiakoa linea indartsua izan zen", nabarmendu du ikertzaileak.

Espainiako Gobernuak 1909an Gipuzkoako Foru Aldundiari eman zion bere telefono sarea kudeatzeko eskumena, eta 1923an jarri zen martxan Donostiako telefono automatiko hura. Baina Gipuzkoako Foru Aldundiak telefono automatiko hura garatzeko orduan Debagoiena kontuan hartu zuen? Galdera horren erantzuna da gakoa, ikertzaile bizkaitarraren ustez.

"Gipuzkoako Foru Aldundikoek ez zuten Debagoiena kontuan hartu telefono automatikoaren sarea eratzeko orduan. Izan ere, 1920ko hamarkadako Foru Aldundikoek telefonoa Zarautzera –dirudunak bertara joaten ziren oporrak igarotzera–, Pasaiara, Hernanira eta Irunera eraman zuten. Geografikoki herri estrategikoak zirela pentsatu daiteke, baina Debagoieneko herriak ere garai hartan oso estrategikoak ziren Gipuzkoarentzat. Edozelan ere, ez zuten kontuan izan Debagoiena geografikoki sarea ezartzeko orduan", azpimarratu du EHUko ikertzaileak.

## Telefono-kabinak

1964an ezarri ziren lehenengo kabinak EAEn. Bilbon jarri ziren lehenak, baina 1972ra arte ezin izan zen herrien arteko komunikazioa gauzatu. Gipuzkoan, Foru Aldundiak telefono sarearen kontrola zuen, baina kabinak Telefonicak instalatu zituen, Bilboren ostean. 1966an Bergaran, jarri zuten aurreneko kabina.



Herritar bat kabina bat erabiltzen.



Gauzak horrela, berrikuntza hartatik kanpo gelditu zen Debagoiena. Ondoren, 36ko gerra etorri zen, eta Bergarak, Oñatik, Arrasatek eta Aretxabaletak, orduko eskualdeko herri garrantzitsuenek, 1950eko hamarkada bukaeran jaso zuten telefono automatikoa.

"Bergarako zentraleko arduradunak –gaur egun Gasteizen bizi da– konfirmatu zidan Debagoienak ez zuela telefono automatikorik izan ia 1960ko hamarkadara arte.

Orduan hasi ziren jartzen landa eremuraino telefonoa herri txikietan ere. Interesgarria da nabarmentzea Mondragon mugimenduak eta kooperatibek izan zuten eragina telefonoa ezartzeko orduan. Zerbitzu asko sortu ziren industriaren eraginez, eta telekomunikazioetan ere islatuta ikusten da hori. Kontuan hartu behar dugu enpresa horiek aberastasuna sortu zutela eskualdeko hainbat herritan. Gainera, baserri munduko dirudunek ere telefonoa landa eremuraino eramateko eragin zuten, noski", nabarmendu du Begoña Villanuevak.

Debagoiena industriaren garapenak markatu zuen XX. mendean. Union Cerrajerak eta ondoren kooperatibek inguruan lana eta aberastasuna sortu zuten. "Horregatik da oso interesgarria jakitea komunikazioa zergatik heldu zen hain berandu bailarara, osotasunean aztertuta ondorio esanguratsuak azaleratzen dira eta. 1936a aurretik Gipuzkoan telefonia automatikoaren garapenaren planean, Foru Aldundiak nora eta zergatik eraman zuen telefonoa ikustea oso esanguratsua da. Estereotipoak erabat betetzen dira. Dirua zegoen tokietara eraman zuten. Beraz, zergatik eraman zuten Telefonick Debagoienara eta ez Foru Aldundiak? Historia, beraz, uste baino konplexuagoa da eta uste baino ertz gehiago dituela argi ikus daiteke", aipatu du ikerlariak.


### **Enpresen indarra**

Telefonoa, bere hastapenetatik, "oso-oso garestia izan da, gure lurralde menditsuan. Aldapak, mendiak, itsasoa... Instalazioa egiteko lurralde zaila izateaz gain, 1992ra arte kontuan izan behar dugu Telefonica bakarrik existitu zela estatuan. Jaun eta jabe izan dira eta nahi izan dutena egin dute", dio bilbotarrak. Telefonoaren hastapenetan, dirua zuenak sare pribatuak muntatu ahal zituen, baina horiek muntatzea dirutza izugarria zen. "Linea bereziak ziren. Berdin gertatzen zen erregea Zarautzera joaten zenean, udan. Linea berezia jartzen zioten Madrilekin berba egiteko. Enpresa batek linea eskatzen bazuen ere, soilik enpresak erabili ahal zuen linea ezartzen zuten. Herritarrek ezin izaten zuten hori erabili. Alde horretatik, Bergarak, Oñatik, Arrasatek eta Aretxabaletak garapen ona izan



**BAILARAKO HAINBAT  
ENPRESAK OSO  
GARESTIAK ZIREN  
LINEA BEREZIAK  
MUNTATU ZITUZTEN**

**GERRA AURRETIK,  
GIPUZKOAKO FORU  
ALDUNDIAK BERE SARE  
AUTOMATIKOTIK KANPO  
UTZI ZUEN BAILARA**



Goiko irudian, telefonistak lanean, Gipuzkoako zentrallean.

15. orrian, goian, bi mekanikari lanean, eta behean, telefono tarifen kartel bat.

zuten. Noski, hauek linea pribatuak ziren, enpresendako bereziki sorturikoak".

"Mugikorrak heldu arte, telefono automatikoa izan genuen gure etxeetan. Eskuz erabili beharreko telefono horiek pelikuletan bakarrik ikusten genituen. Baina sistema hori existitu egin da. Horrela, gerra ostera arte, ezinezkoa zen urruneko deiak egitea gurean. Donostiak 1923tik, ondoren Bilbok, eta Gasteizek 1930etik aurrera telefono automatikoa izan arren, ezinezkoa zen hiri batetik bestera deiak egitea. Lurraldeak eta herriak lotzea oso-oso garestia zen eta gerra ostean, gainera, ez zegoen horretarako dirurik".

### Telefonisten lana

Telefono automatikoa heldu aurretik, telefonisten lana ezinbestekoa izan zen dei bat egiteko. Emakume horiek, zentraletatik, jendea elkarren artean konektatzen zuten. Telefonista moduan ibilitako emakume askorekin hitz egiteko aukera izan du Begoña Villanuevak: "Gizartean *ondo ikusiak* zeuden telefonistak. Gazteendako hobekien

baloratutako lanbidea zen telefonistena, batez ere, 1950eko eta 1960ko hamarkadetan. Gipuzkoan eta Bizkaian, esaterako, jostunen maila berean, oso ondo baloratuta zeuden. Gerra ostean, emakumea ia etxetik irten ezinik egon zen garai hartan, telefonistek goizez, arratsaldez eta gauez txandetan lan egiten zuten. Orduan, emakume hauek kalera irteteko aukera zuten. Garai hartan, emakume bat gauez bakarrik irtetea oso gaizki zegoen ikusita... Ba, telefonistek irteteko *baimen* hori zuten, eta,

## Debekua, euskaraz eta katalanez

Hasierako urte haietan, "euskaraz ez zuen inork egiten telefono bidez, ezin zelako eta jendeak isun eta errepresalien beldurra zuelako". Euskarak hainbat debeku jaso izan ditu historian zehar, batez ere, erakundeen eta administrazioetan jarduteko orduan, eta telefonoarekin ere berdin gertatu zen, XIX. mendean hasita.

Hain zuzen ere, 1896an, euskaraz eta katalanez telefono bidez hitz egitea debekatu zuen Espainiako Gobernuak Posta eta Telegrafo Zuzendaritza Orokorrak. Teknologia aurrera egin ahala, eta telefonoa toki gehiagora heldu ahala, gerraren ostean, debeku hori indartzeko dekretua kaleratu zuen gobernu frankistak.

gainera, mekanikariekin batera lan egiten zuten. Gau osoa batera egoten ziren, baina garai hartan, beste edozein lanbidetan gaizki ikusia zegoen gizonekin batera lan egitea. Hala ere, ezkontzen zirenean, lana utzi behar izaten zuten".

Hasieran gizonak ere egon zirela dio Villanuevak: "Baina gutxi izan ziren. Bilbon, adibidez, armatuta zeuden udaltzainak hasi ziren lan honekin. Baina, dirudienez, ahotsaren tonua zen garrantzitsua garai hartan, eta emakumeek gozoagoa zuten. Gazteak ziren, gainera, eta ez zuten familia ardurarik, ezkongabeak zirelako. Horretaz baliatzen ziren... Gipuzkoako Foru Aldundirako lan egiten zuten telefonistek, gutxienez, akordio bat lortu zuten, eta, ezkontzean, garai hartako 1.400 pezetako haborokina izaten zuten. Soldata ere ez zen txarra garai hartan. Kontuan izan behar dugu telefonisten lana ezinbestekoa zela lineen funtzionamendurako".

Telefonista izateko, bestalde, ez zuten ikasketa berezirik egin behar: "Idazten eta irakurtzen jakin behar zuten bakarrik. Hala ere, nazioarteko sailean lan egiten zutenei, noski, hizkuntzak menperatzea eskatzen zieten. Gipuzkoan, adibidez, Iparraldearekin eta Frantziarekin komunikazioa ohikoa zen, eta frantsesa ezinbestekoa izaten zen telefonistentzat".

Garai hartan, konexioak egiteko orduan, orduak pasa zitezkeen dei bat egiteko: "Itxaronaldia deika zegoen jendearen arabera izaten zen. Telefonistek ahal zutena egiten zuten. Adibidez, 'bi orduko atzerapena duzu', esaten zituzten telefonistek, eta bi orduren ostean bueltatzen zinen eta deia egiten zenuen. Esan behar da telefonoa erabiltzeko beldurra zegoela, dena kontrolatu zitekeelako. Komunikazioak urte askoan kontrolatuta egon ziren gerra ostean, eta ETaren sorreraren ostean. Telefonoak kontrolatuta zeuden".

1980an desagertu zen euren lanbidea, telefono-sare osoa automatiko bilakatu zelako: "Haien testigantzak jasotzea eta soinu-artxibo bat sortzea da beste ideietako bat. Noski, 80 urtetik gorako emakumeak dira, eta ez da erraza haiek kontaktatzea, baina artikulua irakurtzen duen norbait nirekin edo Goienarekin harremanetan jartzea oso lagungarria izango litzateke". ■



## **GARAI HARTAKO GIZARTEAN "OSO ONDO BALORATUA" ZEGOEN TELEFONISTEN LANBIDEA**

## **1980AN GUZTIZ DESAGERTU ZEN TELEFONISTEN LANBIDEA, SARE AUTOMATIKOAREKIN**



AINTZANE IRIZAR

# Ez zaude gonbidatuta

**H**eriores bisita inguruan nabaritzea eta bizi izatea latza da, benetan. Oso gertu izan dut askotan, nire 43 urte hauetan. Ama eraman zidan lehendabizi. Baita amama, beste amama eta osaba batzuk ere. Eta, orain dela hamar urte, alaba. Orain dela ia bi hilabete nire izeba kuttuna joan zaigu Heriori eskutik helduta. Eta aste gutxi batzuk dira berriro etorri zaigula, inork haren bisita espero eta nahi ez zuenean. Eta krudela eta gupidagabea da benetan, Herio madarikatu hori. Baita oraingo honetan ere, oraingo honetan bereziki. Ez du gupidarik, ez. Zeharo oker jokatzeko du sarrigaitan. Ez ditu bidaia-lagunak ondo aukeratu. Ez die batere aukerarik ematen. Berekoikeriaz jokatzeko du

gehiegitan, beste inork kontuan izan gabe. Ez digu gauzak eta patua ulertzeko aukera handirik ematen. Haserrarazi egiten gaitu. Herio gorrotatzeko arrazoi asko dugu. Min sakona eragiten baitugu, halakorik merezi ez dugunean. Ez du inork gonbidatzen, baina lotsagabe sartzen zaigu etxean.

Arrazoiketa nagusi den gizarte honetan, ez da batere erraza zenbait egoera eta bizipen zentzua aurkitzea, zergatia aurkitzea... Inbidia ere ematen didate "jaungoikoarengan"

## EZ DA BATERE ERRAZA ZENBAIT EGOERA ETA BIZIPENI ZENTZUA AURKITZEA, ZERGATIA AURKITZEA

edozeren azalpena aurkitzen duten horiek. Bejon dagiela! Mina mina da, eta bidegabekeriak bidegabekeria.

Hala eta guztiz ere, pentsatu nahi dut min orok, sufrimendu orok, bidegabekeria orok, baduela atzean aukera berri bat, probetxuren bat, misioaren bat, ikaskuntzaren bat, misioaren bat... Halaxe bizi izan dut, gainera. Norbaitek pentsa lezake inozoaren jokaera dela hori, baina badago beti lezioaren bat une gogor orotan. Oihuka dezagun minez eta haserrez, oihuka dezagun amorruez, baina, batez ere, oihuka dezagun indarrez, adorez, maitasunez, elkartasunez... oihartzun polit bat entzun dadin, indarrez bete, denon babesa eta maitasuna barreiatuko dituen. Muxutxo bat, polit hori. ■■■

## EZTABAIDA

### Drone bidezko banaketak

Googlek baimena lortu du Australian produktuak droneen bidez banatzeko, eta Ameriketako Estatu Batuetan ere hil honetan emango dute lizentzia banaketa komertzialak egiteko.



OIER YANIZ  
DRONE GIDARIA

"Drone autonomoen bidezko banaketa etorkizuneko zerbait dela uste izateaz gain, larrialdietarako mugatuta egon beharko litzatekeela uste dut. Droneen teknologia berria delarik, ahalik eta seguruen egiten saiatu beharko genuke, ez zerua dronez beteta".



AITOR KAPEROTXIPI  
INFORMATIKARIA

"Ideia moduan ondo, baina gauza batzuetarako, eta, dena bezala, neurrian. Teknologia laguntzeko dago; zorritzarekin, asmakizun hauek lanpostuetan izaten dute eragin zuzena. Saltzaileak gutxitu egin dira, orain banatzaileak, eta honek ekar ditzakeen arriskuak...".



## XIXILI

HELENA AZKARRAGAUZAR



## ERREMATEA



GOTZON IPARRAGIRRE

## Jaso ala lortu?

**B**adira astetxo batzuk emaztea eta biok ohiko lekuan kafea hartzen ari ginela Gasteizen. Barra ingurua bete samar. Andretxo bat sartu zen, begirada galduaz, leku bila balebil eran. Leku egin genion. Triste zetorren. "Estoy muy triste, no sé qué me pasa...", zioen.

Emaztea oso sentibera da kausa galduen basamortua igarotzen ari direnekin, bereziki pertsona nagusi badira, eta "konta egiguzu" esan zion. Apur baten egon zen berbetan, negarrez ere. Triste eta bakardade antzean irudikatu nuen. Alde egin genuen, eta bere irudia nire barruko ispiluak ni neu bihurtuz bueltatu zidan. Proiektzioak galdetu egin zidan: eta zu?

Eskatzen hasita, noizbait, beharrean naizenean, norbaitek zaindu nazan eskatuko nukeen arren, ustez, nire esku egon daitezkeen bi gauzatxo eskatuko nituzke: urteetan aurrera, bakardadeaz tratu on bat ituntzea eta gaitasunen gainbeherazko bidean murgiltzean, naizenaren kontzientziaren bidezidorrean aurrera egitea.

Ispiluak, ostera ere, itauna: hori borondatezko lanketaz lortzen da ala eman egiten zaigu? ■■■



**MAIALEN SANTOS**  
HERRITARRA

"Enpresa handien mesederako soilik egin den aurrerapen bat da. Abantailak baino gehiago, desabantailak ditu: droneak txoriekin nahastuta, banatzaile fisikoen beharrik eza... Egungo banaketa sistemen kudeaketa egokia da, eta ez dut drone bidezkoaren beharrik ikusten".



**JUAN ANTONIO GARCIA**  
BANATZAILEA

"Banatzaile lanetan jarduten dugunok zuzenean ematen diogu produktua jasotzaileari, eta horrekin ziurtatzen dugu toki egokira iritsi dela paketea. Enpresa handietan banatzaile lanpostuak gutxitzeko balio lezake droneen erabilerak, eta ez zait ondo iruditzen".

# Udal-hauteskunde mozorroen dantza



IÑAKI BARRUTIA ARREGI PSIKOLOGO KLINIKOA

**L**aster, berriz udal hauteskundeak ditugu eta, nire ustez, parte hartzeko motibo asko daude. Hauteskunderi buruzko gogoeta egin baino lehenago, garrantzitsua iruditzen zait planteatzea oinarrizko premisa bat: bizimodu hobea eta mundu justuagoa lortzeko legeak eta neurri politikoak Legebiltzarrean eta udaletan egiten dira, baina lege eta neurri politiko horiek kalean bultzatzen dira, eta kaleko mobilizazioak dira beraien sostengu eta bermea.

Aurretik hori esanda, saiatuko naiz azaltzen zergatik merezi duen bozkatzea hauteskunde hauetan. Jendartearen hiru segmentu ahaldundu dira kaleko mobilizazioen bitartez: pentsiodunak, emakumeak eta ekologista gazteak. Nire ustez, azkenengo segmentu hori, gaztediarena, hasi besterik ez da egin, baina laster, olatu feministak besteko indarra izango du. Alderdi politiko batzuk olatu horietan botoak arrantzan dabilta, eta horretarako, txipiroiak moduan, urak nahastu eta zikindu egiten dituzte hedabideen

laguntzarekin. Beraz, komenigarria litzateke hauteskunde mozorro dantza honetan ideia batzuk argitzea.

**Hasiko naiz** pentsiodunen segmentuarekin. Pentsiodunak astelehenero kalera ateratzen dira pentsio duinak eskatzera; mobilizazioak gero eta handiagoak dira. Orain arte gobernuan egon direnek diote ez dagoela dirurik. Gezur hutsa, bankuen zorrak kitatzeko diru publikoa erabili baitzuten. Estatua langileen nominekin egiten da, aberatsak ingeniariak fiskalaren bitartez libratzen direlako; azken finean, herritarrak gara paganoak. Baten batek pentsatuko du sinpleegia dela nik esaten dudana, baina egia gordinak sinpleak dira eta, askotan, konplexutasuna eta korapiloa egia ezkutatzeko erabiltzen dira. Pentsioak pribatizatuz gero, bankuentzat pagotxa handia izango litzateke. Orain, hauteskundeak dauzkagu eta gobernuakideak beherapenekin hasiko dira, esanez pentsioak igoko dituztela. Hona hemen lehenengo mozorroa, merkatariaarena.

**Jendartearen beste** segmentu garrantzitsu bat gaztediarena da; beraiek dira etorkizuna, baina, horretarako, ama lurra zaindu behar dugu. Indiarrek esaldi polita dute lurraren zaintzari buruz: ama lurra ez da gurasoengandik jasotako oinordetza, seme-alaben mailegua baizik. Gazteak, kolektibo moduan, orain hasi dira kalera irteten ingurumena defendatzen, orain dela berrogei urte ekologistek egin zuten moduan. Aldiz, euskal agintariak ingurumenaren eta iraunkortasunaren gainean gauza gutxi egin dute; ekologistak iraintzea eta egoeraren larritasuna zuritzea izan da gobernuaren politika. Hor dago erraustegiaren afera, gure osasunaren kalterako eta udalak zorrez beterik uzteko. Laster, hauteskundeen kanpainan sartuko gara eta ikusiko ditugu boterearen politikariak ekologisten mozorroa jantzirik, *trantsizio energetikoa* eta halako hitzak erabiltzen, baina porlanezko kultura indartzen. Hona hemen bigarren mozorroa, ekologismoarena.

**Hirugarren segmentu**

garrantzitsua emakumeena da; azken bolada honetan, feministek olatu handi bat sortu dute eta arrisku handia dago diskurtso feminista patriarkalismoaren eskuetan jausteko. Urte asko ez dira boteretsuek feministei buruz astakeriak esaten zituztela; orain, berriz, beraien diskurtsoa bereganatzen ari dira. Gai izango ote da botere patriarkala olatu feminista kapitalizatzeko? Hona hemen hirugarren mozorroa, feminismoarena.

**Nire ustez**, hauteskunde hauetan arrazoi ugari dugu bozkatzeko. Demokratak garen herritarrak pairatzen ari gara autoritarismo faxistaren eraso; horren aurrean, erantzuna izan beharko litzateke demokrazian sakontzea. Ez gara konformatzen lau urtean behin botoa ematearekin, beharrezkoa ikusten dugu herriari galdetzea funtsezkoak diren erabakien inguruan; esate baterako, burujabetasuna, erraustegia, AHTa edo energia berriztagarriak. Gure agintariak euren burua demokratatzen dute, baina ez daude prest

herriari galdetzeko. Umeak lez tratatzen gaituzte. Dena dela, demokrata mozorroa jantzi eta beraien lidergoa beharrezkoa dela defendituko dute.

Udal-hauteskundeetan telebistan ikusiko ditugu boterea dutenak mozorroz aldatzen olatuen arabera. Hedabide gehienek laguntzarekin mozorrotuko dira, gaur feminista, bihar ekologista, etzi pentsiodunei beherapenak saltzen. Honelako edertze ideologikoa eta manipulazioa indargabetzeko, prentsa librea beharrezkoa dugu.

**Gransci-ren hegemonia**

kontzeptua berreskuratuz, azken gogoeta: Euskal Herrian hegemonia kulturala feminista eta ekologista da eta hau da islatu behar duguna udaletan benetako ordezkariekin. Aipatutako hegemonia kulturala indartzeko, gure botoak oso beharrezkoak dira. Herriz herri, batzarrez batzar, urtez urte, sare lana eginez lortutakoa defendatu behar dugu hauteskundeetan: bozak bildu udaletan jendartea eraldatzeko. ■■■

## **DEMOKRATAK GAREN HERRITARRAK PAIRATZEN ARI GARA AUTORITARISMO FAXISTAREN ERASOA**

# "Euskarazko hedabide sistemak 100 milioi euroko sarrera du urtero"

**IÑAKI ZABALETA** KAZETARITZAKO KATEDRADUNA

Europako hizkuntza gutxituen komunikabideak, euren jarduna eta euren egoera ekonomikoa ikertzen 18 urte daramatza Iñaki Zabaleta EHuko irakasle eta ikertzaileak HEKA lantaldean. Martxo bukaeran Europako hedabide horien gainean Atlantian egin zuen hitzaldiak oihartzuna izan du munduko hizkuntzalarien artean. Testua: **Josu Bilbao**. Argazkiak: **Iñaki Zabaleta**.

**U**nibertsitateko katedraduna da Ikus-entzunezko Informazioaren Teoria, Teknika eta Teknologian, Euskal Herriko Unibertsitateko Kazetaritza Sailean, Iñaki Zabaleta leitzarra. HEKA (Hizkuntz Europarren Komunikabideak) lantaldeko

zuzendaria ere bada, eta martxo bukaeran Atlantian izan zen, Europako hizkuntz gutxituen hedabideen gaineko hitzaldi bat egiten.

**Atlantan izan zinen HEKA lantaldean egin duzuen ikerketa lana ezagutzera ematen. Zer-nolako harrera izan zenuen?**

Hizkuntzalaritza Aplikatuko Amerikako Elkarteak gonbidatu ninduen urtero egiten duten kongresura. Hizkuntzalaritza aplikatuan oso garrantzitsua da elkarteak, eta 5.000 hizkuntzalari inguru dira bertako bazkide. Aurten, Atlantian izan zen, eta bertan, HEKA taldearen izenean hitzaldi plenario bat eskaini nuen hizkuntza gutxituen komunikabideen inguruan. Gure ikerketa taldearentzat, oso ohore handia izan da bertan gure ikerketaren berri ematea. Gainera, EHUKo langile eta ikertzaileontzat ere nazioarte mailan gure lana balioetsia dela ikusten dugu horrela.

Beraz, pozik gaude, hitzaldia oso ondo atera zelako eta entzuleengandik harrera ona jaso nuelako. Liburu bat argitaratzeko proposamena ere egin ziguten. Azkenean, beraientzat, gaia interesgarria izan zen, *hizkuntza gutxituak eta kazetaritza* gaiaren inguruan ikerketa egin izana baloratu zuten. Aipatu behar da, gainera, hitzaldiaren sarrera edo aurkezpena Donostiako EHUKo Hezkuntza eta Filosofia Fakultateko irakasle eta Ikerbasque-ko ikertzaile Durk Gorter frisiarrak egin zuela. Berak egin zuen nire aurkezpena, eta hori aipatzea gustatuko litzaidake.

**HEKA lantaldean 18 urte daramatzazue lanean. Zein da ikerketa taldearen jarduna? Zer egiten duzue?**

Gure ikerketa taldeari dagokionez, Nicolas Xamardo, Arantza Gutierrez eta Itsaso Fernandez eta ni egon izan gara lantaldean, eta urte askoan Bartzelonako Carme Ferre izan dugu kolaboratzaile. Orain, taldea berriro egin dugu eta Jesus Mari Zalakain, Nicolas Xamardo, Maria Gorosarri, Tania Arriaga eta ni gaude. Zer ikertu dugun? Alde batetik, Europako hizkuntza gutxituen komunikabide elebazarren egiturak aztertu ditugu: sistemak aldetik, egitura mota





Iñaki Zabaleta.

aldetik, jabetza mota aldetik, zabalkunde mota aldetik... Beste alde bat kazetariena izango litzateke. Zenbat dauden lanaldi osora, generoa... Horrez gain, komunikabide hauek urtean duten bolumen ekonomikoa aztertu dugu. Azkenik, komunikabide elebarkor horien finantzaketa sistema ere aztertzen dugu. Horretarako, lau diru-sarrera nagusi hartzen ditugu kontuan: publizitatea, salmenta eta harpidetza, dirulaguntza publikoak eta beste sarrera mota batzuk. Lau sarrera mota horiek kontuan izanik Europa mailan konparatu egiten ditugu hedabideak. Komunikabide elebarkor diogunean, gutxienez edukiaren %70 hizkuntza propioan dutenak hartzen ditugu aintzat. Irratien eta telebisten kasuan, programazio oso bat hizkuntza propioan izatea.

### **Hedabideez gain, kazetarien jarduna ere aztertzen duzue, ezta? Zer ikertu duzue?**

Kazetarien alorrean, aipatu behar da lan polita egin genuela generoaren ikuspegitik. Emakumeen presentzia zenbatekoa den jakiteko inkesta bat egin genuen. Beste alor bat kazetaritza eta hizkuntza izango litzateke. Alor honetan, besteak beste, aztertu genuen: hizkuntza gutxiagotu hauek gai dira kalitatezko kazetaritza egiteko? Hizkuntza bera prest dago, egokituta dago kazetaritza moderno kalitatezkoari erantzuteko? Eta kazetariak ongi prestatuta daude? Hizkuntza egoki menderatzen dute kalitatezko kazetaritza egiteko? Hor inkesta interesgarria egin genuen eta emaitza bitxia azalerratu zen. Alde batetik, galdetu genuen kazetariak zer pentsatzen zuten kazetariak euren hizkuntza jabetasunari buruz, eta, bestetik, haiek zer pentsatzen zuten euren lankideen hizkuntza gaitasunari buruz. Ia ehuneko ehunak pentsatzen zuten norbera ongi prestatuta zegoela kalitatezko kazetaritzari erantzuteko, baina kazetarietako %60k pentsatzen zuten lankidea ez zegoela behar bezala prestatuta.

### **Hizkuntza gutxituetan aritzen diren kazetariak hizkuntzarekiko atxikimendu berezia dutela ondorioztatu duzue. Nola?**

Kazetaritzak oinarritzko lau funtzio edo rol dituela diote adituek. Hori nazioarte mailan, ikerkuntza akademikoan atera diren kategoriak dira. Bata da interpretatzailea, bestea diseminatzailea, bestea aurkariarena –aginteari kontra egitea– eta azkena populista edo mobilizatzailea litzateke. Guk Hizkuntza gutxiagotuetako kazetariei galdetu genien ea hizkuntzaren defendatzaile izatea bazeukan tokirik kazetaritzaren jardueran. Eta ia

gehienek baietz esan zuten. Euren kazetaritza profesioan, kalitatezko kazetaritza egitearen funtzioen artean, zegoela ere hizkuntzaren defendatzaile, babesle, promozionatzaile edo aktibista izatea. Hori gertu gelditzen da populista edo mobilizatzaile funtzio horretatik. Oso emaitza interesgarria da, horrek esaten digulako kazetaritza beti dela kokatua. Hau da, hizkuntza edo kultura batean kokatua, eta ez dagoela kazetaritzaren definizio unibertsalik edo definizio orojakilerik. Hizkuntza nagusien kazetaritzak ezartzen du kazetaritza profesionalaren definizioa. Orduan, horiek ere kokatuta daude euren kulturen. Beraz, hizkuntza gutxiagotuen kazetaritzan nazioarteko lau funtzio horiek kontuan izanik, badago atxiki beharra hizkuntzaren sustatzaile-defendatzaile izatearena. **Boterearen hirukiaren kontzeptua azpimarratzen duzu hitzaldietan...**

Hiruki boteretsua edo boterearen hirukia deitzen dioguna dugu. Hori eratzen dute nazio-estatuak, hizkuntza nagusiak eta hizkuntza nagusian dabilzan komunikabide nagusiek. Horiek ezartzen dute identitatea, rola, agenda, gizartea, bizitza soziala... Dena baldintzatzen dute, eta horiek Europa mota bat egiten dute. Baina horren aurrean, badago beste Europa bat. Herrien Europa, hizkuntza gutxituen Europa. Orain, Europan *brexit*-a eta ultraeskuindar ideologiak hazten, hizkuntza nagusi horien monopolioa berriz ere nahi dute indartu, eta horren aurrean herrien eta hizkuntza gutxituen Europa honek izugarritzko garrantzia du Europa zabalago eta integratzaileagoa egiteko, eta herrien arteko harremanak sendotzeko.

### **Hizkuntza gutxituetan aritzen diren hedabideen gaineko errentagarritasuna ere izan duzu hizpide. Euskarak ez duela dirurik ematen mito hutsa da?**

Euskararen baitan, alorrean, inguruan, kulturen, komunikabideetan edo merkatuan inbertitzen den euro bakoitzak gutxienez bi euro baino gehiago mugitzen ditu inguruan. Euskarazko komunikabideen sistemak –guztien artean– 100 milioi euro inguruko diru-sarrera dauka urtero. Beraz, badago dirua hor, eta guztira, Europan hizkuntza gutxituetan dabilzan komunikabide guztien artean, 1.079 milioi euroko diru-sarrera dute. Egia da katalanek pisu izugarria dutela, sistema horren %70 hartzen dute.

**Katalanek alde ederra ateratzen diete, beraz, besteei...** Europako komunikabide horien artean hiru maila daudela esango nuke. Katalanak egongo liriteke



Iñaki Zabaleta, Atlantan, hitzaldia eskaintzen.

**"HIZKUNTZA GUTXITUEN EUROPAK  
GARRANTZIA DU EUROPA ZABAL ETA  
INTEGRATZAILEGOA EGITEKO"**

**"IRLANDARRAREN KASUA  
KEZKAGARRIA DA, ETA EZ DA,  
INONDIK INORA, GURE EREDUA"**

**"OSO OHORE HANDIA IZAN DA  
AMERIKETAKO ESTATU BATUETAN  
GURE IKERKETAREN BERRI EMATEA"**

lehenengo mailan, %70 horrekin. Gero, badaude beste hiru sistema nahiko garapen polita dutenak: euskaldunak, galiziarrek eta galestarrak. Potenteak dira. Hirugarren maila baten daude Irlandakoa, oso kasu berezia, frisia, Korsikaren kasua, Samia, bretoia eta eskoziarra. Horietako bakoitzak 20 milioi euro inguruko diru-sarrerak ditu urtero. Bretoiak, 1-2 milioi besterik ez. Eta Irlandako kasua berezia da. Euskal Herriarekin alderatuz, erdia bakarrik inbertitzen da. Datua oso-oso baxua da, kontuan izanik, beraz, irlandarra dela estatu-hizkuntz ofiziala eta haiek esaten dutela 800.000 hiztun omen daudela, nahiz eta zifra hori inor ez sinetsi. Irlandarrek, gutxienez, diru-sarreretan bikoitza izan beharko lukete, euskaldunen pare. Irlandaren kasua oso kezkarria da.

Garatu dugu komunikabideen garapen maila neurtzeko indize bat. Bi kontzeptu erabiltzen ditugu: komunikabideen dentsitatea eta dentsitate ekonomikoa. Hau da, zenbat komunikabide daude milioi bat euskaldun zerbitzatzeko? Eta zenbat kazetari daude milioi hori zerbitzatzeko? Eta zenbat diru dago horretarako? Horiekin indize bat egiten dugu, eta horiek kontuan hartuta gauza bitxi bat ateratzen zaigu. Adibidez, Eskozian 60.000 eskoziara-hiztun daude, gutxi gorabehera. Eta samien artean 25.000. Noski, sami guztiak 100.000ra ez dira heltzen. Ba, adibidez, Eskozian badute irrati bat eta telebista bat, euren hizkuntzan, 60.000 pertsona zerbitzatzeko. Gogoan dut ETB sortu zenean Amatiñok esaten zuela milioi erdientzako telebista bat egin zutela eta munduan ez zegoela horrelako besterik. Ba, begira Eskoziaren kasua. Bestalde, guk 900.000 pertsona zerbitzatzeko egunkari bat dugula esaten dugu, *Berria*. Samien artean 25.000 sami zerbitzatzeko egunkari bat dute. Txikia, baina egunkaria: asteen bost aldiz kaleratzen da *Avvir*. Beraz, gure komunikabideen garapen indize horretan, samiak eta eskoziarrak goian daude, eta euskaldunak ere nahiko ondo. **Hau guztia Atlantan ezagutzera eman zenuenean, zer iruditu zitzaizen entzuleei?** Asko harrituta gelditu ziren errealitate ezezagun honekin. Neurri batean, euskarazko komunikabideen garrantzia, garapena eta tamaina nabarmena zela ikusi zuten. Katalanenaz ere harrituta gelditu ziren; gainera, Katalunia modan dago. Nik Irlandako kasua ere aipatu nuen modu kritikoan, garapen txikia duelako eta inondik inora ez delako gure eredu. ■■■

# Alde handiak osasunean

## DESODORANTEAK

### LARRAITZ ZEBERIO LEKUONA

ARGAZKIA: GODISABLE JACOB / PMK

Desodorante edo usain-kengarri batzuek osagai toxikoak dituzte.

Osasunarentzako zein ingurumenarentzako kaltegarriak izan daitezkeen substantziak izan ditzakete, eta besapean zer ipintzen dugun ondo begiratzea komeni izaten da. Osasunarentzako kaltegarriak diren substantzien artean, etengailu endokrinoak nabarmentzen dira.

Ingurumenari kalte egiten dioten produktuen artean, berriz, kutsatzaile arriskutsuak aurki daitezke.

### Etiketak ondo irakurri

Desodorantea edo usain-kengarria aukeratzeko osagaien etiketa ondo irakurtzeko gomendioa egiten dute adituek. Garrantzitsua da zein substantzia dituzten jakitea; izan ere, ipinitakoan, ordu askotan izango dugu produktua azalean.

Besapeko azala, gainera, bereziki sentikorra da, eta heze egoten da sarri. Bizarra egin berria edukitzeak, berriz, areagotu egiten du produktuaren eragina.

Faktore horiek guztiek erraztu egiten dute desodoranteak duen edozein substantziak azala gaintzea eta odol-sistamaraino iristea. Kontuan hartzeko beste faktore

garrantzitsu bat da besapeak bularretatik oso gertu daudela, eta bularreko glandulak oso sentiberak dira hormonon eraginari. Hala, bereziki saihestu behar dira etengailu endokrinoak. Gogoratu etengailu endokrinoak hormonon funtzionamendua atzeratzen duten substantzia sintetikoak direla, eta hormonon agindupeko organoetan tumore eragileztat jotzen direla.

### Toxikoak diren osagaiak

Toxikoak diren osagaien artean nabarmentzen dira *triclosan*, *BHT*, *butylphenyl-methylpropional*, *ciclopentasiloxano-ciclotmeticona* eta *methylparaben* edo *propylparaben* etengailu endokrinoak. Horietako batzuk, gainera, oso kaltegarriak dira ingurumenarentzako.

*Hydroxyisohexyl 3-cyclohexene carboxaldehyde* (HICC) ere saihestu egin behar da. Alergiak eragiten dituen lurrina da eta 2021. urtetik aurrera debekatuta egongo da kosmetikoetan erabiltzea.

Azkenik, substantzia arriskutsuen artean dago *yodopropinil butilcarbamoto* kontserbagarri alergenikoa.

### Ondo aukeratu desodorantea

Ez da zaila osasuna zainduko duen desodorantea aukeratzeko; izan ere, badaude merkatuan.

Lehenengo aholkua da saihesteko zerrendatutako osagaiak dituzten produktuak.

Horrekin batera, lehenetsi behar dira osagai naturalekin egindako kosmetika produktu ekologikoak.

Kontuan hartu, baita ere, lurrin edo perfume batzuk alergia iturri izan daitezkeela, eta etengailu endokrinoak izan ditzaketela. Hala, hobe da lurrin sintetikorik gabeko desodorante bat aukeratzeko.

Ez erabili desodoranterik bizarra egin eta berehala, ez eta besapea heze badago. Kasu bietan, azala zaurgarriago dago horrelakoetan.


Egokiagoak dira *roll-on* zein krema formatuko desodoranteak esprai formatukoak baino. Erabiltzerakoan, azken horiek partikula txikiak askatzen dituzte eta arnastu egiten ditugu.

Aukeratu aluminiarik gabeko desodorantea, batez ere, ekzema arazoak daudenean edo besapean zauritutako azala dagoenean.

### Kontuz publizitate-mezuekin

Azkenik, ez egin jaramonik ohikoak diren *azal sentiberentzako*, *sentikorra* eta halako publizitate-mezuei; izan ere, ez dira inondik inora substantzia kaltegarrien gabeziaren berme. ■■■





**DESODORANTE BATZUEK  
OSAGAI TOXIKOAK  
DITUZTE ETA ONDO  
IRAKURRI BEHAR DIRA  
OSAGAIEN ETIKETAK**

# Hegoafrikako uretan igerian

XABIER GORDOA, OPEN WATER WORLD TOUR-EAN

## ENEKO AZURMENDI

ARGAZKIAK: JENDAMARK ETA X.G.

Hegoafrikako Port Elizabeth hirian jokatu den Jendemark Bellbuoy Challenge proban parte hartu du Xabier Gordoak oñatiarrak. Open Water World Tour zirkuituaren baitan dagoen probetako bat da hau. Zirkuitua iaz egin zuten lehenengoz, eta Hegoafrikako lasterketa hau aurten sartu da. Probako antolatzaileek gura zuten iazko txapeldunak lasterketan egotea, eta gonbidatu egin dituzte, Gordoak bera eta Andrea Fos.

Izan ere, iaz txapeldun izan zen oñatiarra, Valentziako Mediterranean Coast Challenge proba irabazita. "Zirkuituko lasterketa luzeena eta puntuazio altuenekoa izan zenez, eta inork ez zuenez zirkuituko proba batean baino gehiagotan parte hartu, Open Water World Tourreko irabazle izendatu ninduten", azaldu du.

Lasterketari dagokionez, hamargarren postuan bukatu zuen, eta postua agian ez, baina denbora hobea egiteko aukera izan zuela uste du. "Hasieratik, lehenengo gizonetakoak eta emakumeetakoak aurrera egin zuten, eta haien atzetik zortzi laguneko taldetxo bat egin genuen. Erdi inguruan, ez dakit zergatik, baina nire aurrekoa gelditu egin zen, eta aurreko taldeak ihes egin zigun. Hori dela eta, helmugara bitartean

denbora galdu genuen", adierazi du.

Tour honetako beste proba batean ariko da, agian, Gordoak, Tarragonako Open Water Costa Dorada proban, baina ez da bere lehenatasuna izango. "Ahal badut, joango naiz; bestela, ez".

## Bi lagunekin

Ioritz Agiriano eta Mikel Biain oñatiarrekin egin du bidaia Gordoak. "Gonbidapen mezua jaso nuenean, zalantza sortu zitzaidan, eta, badaezpada, baieztatu egin nuen ea hala zen. Behin egia zela jakin nuenean, bi lagunekin komentatu nien, eta baieztatu eman zidaten". Hamar egun egin dituzte Hegoafrikan. "Lehen bost egunak Port Elizabeth inguruan

egin genituen. Hondartzak eta lasai egoteko lekuak ziren. Ondoren, Lurmutur Hirian egon ginen, eta han gauza gehiago ikusi genituen, turista bizimodua egin genuen. Table Mountain-en egon ginen, adibidez".

## Espainiako Kopa

Bestalde, Getaria-Zarautz zeharkaldiak 50 urte beteko ditu datorren urtean, eta, hori ospatzeko, Zarautz-Getaria-Zarautz egitea pentsatu dute. Proba modura egingo duten arren, Espainiako Koparako puntuagarria izango da. Parte hartuko du Gordoak, eta, horrez gain, beste hiru probatan ere ariko da: bi Katalunian eta bat Asturiasen. ■■■



Gordoak, saria jasotzen.



Lasterketa amaieran, itsasotik irten berri.



Gordoa, erdian, Aloñaren banderarekin.



Gordoa, zeharkaldiaren zati batean, igerian.



Table Mountain-en.



Cape Point-en.

# Aurrerapenaren ordaina

ANIMALIAK IKERKUNTZAN



**JANIRE LAMARIANO**

KIMIKA ORGANIKOAN DOKTOREA

ARGAZKIA: NEKRUM

Albisteetan ikusi dugulako, telebistako saioen batean edota pelikuletan... guztiok dakigu ikerkuntzan animaliak erabiltzen direla hainbat proba egiteko. Pelikula batzuetan azaltzen dira untxiak eta arratoiak karioletan, eta filmeko protagonistak ikertzaile anker baten atzaparretatik salbatu behar ditu. Txakurrak eta tximinoak ere azaltzen dira trantze horietan. Beste batzuetan, aldiz, animalia horiei esker mundua salbatzeko txerto, edabe edo dana delakoa lortzen dute zientzialariek, eta animaliei esker salbatzen da gizadia!

Animaliek ikerkuntzan duten papera aztertzeke eta eztabaidatzeko gaur egun ditugun datuak aztertuko ditugu, usteak albo batera utzita. Helburua da ezagutzea benetako zenbakiak eta animaliak ikerkuntzan erabiltzeko aldeko eta kontrako argudioak.

Datuak Espainiako gobernuaren atari digitalean kontsulta daitezke: [www.mapama.es](http://www.mapama.es). Azken txostenaren arabera, pasa den urtean 802.976 animalia erabili ziren Espainian ikerkuntzarako. Ia %80 ugaztunak ziren, baina hegaztiekin, anfibioekin eta narrastiekin ere ikertzen da.

Ugaztunen barnean, arratoiak dira gehien erabiltzen direnak: animalia guztien %65. Iaz, Espainian 523.467 arratoi erabili ziren.

## Animalien sufrimendua

Ikerketa gaien %24 nerbio sistemarekin lotutakoak izaten dira, %22 etologiarekin –animalien jarrera ikertu–, eta %11 sistema bat baino gehiago lotzen dituzten lanetarako. Ondoren datoz onkologiarekin, sistema immunitarioarekin eta endokrinologiarekin lotutako gaiak.

Hala ere, bada animalien erabileraren eztabaidan erabiltzen den argudio irmo bat: animalien sufrimendua. Esan beharra dago animaliekin ikertzen duten ikertzaileek ikastaro bat egiten dutela, eta bertan, animaliak ahalik eta gutxien sufritzeko teknikak irakasten dizkiete. Hala ere, oinazea egon badago, eta lehen aipatutako txosten horretan ere azaltzen dira gai honekin lotutako estatistikak. Hil egiten da animalien %5, sufrimendu arina du %52k, sufrimendu moderatua du %35ek eta

**GIZAKIOK GENOMAREN  
%95 PARTEKATZEN  
DUGU ARRATOIEKIN  
ETA ANTZERAKO  
GAIXOTASUNAK DITUGU**


sufrimendu larria du %8k. Etika komisioak daude horrelako arloak lantzeko, eta beste aukerarik ez dagoen kasuetan bakarrik erabiltzen dira animaliak. Hori diote, behintzat. Animalien erabilerak izan duen urtetako bilakaera aztertuta datua da orain dela zortzi urte baino heren bat gutxiago erabiltzen direla gaur egun animaliak ikerkuntzarako.

## Beharrezko da?

Ikuspegi orokorrera bueltatuz eta zenbakiak ezagututa erantzun beharreko galdera da beharrezkoa den edo ez milioi erdi arratoi horiek erabiltzea. Egia da ezagutzen dugun biomedikuntza eta sendagaien bilakaera ezinezkoa izango litzatekeela animaliak erabili gabe. Ikerketa horiek balio izan dute ez bakarrik penizilina, insulina edo tetanosaren kontrako txertoak ezagutzeko, baizik eta ebakuntzak, organo transplanteak, odol transfusioak eta eskanerra bezalako teknikak eboluzionatzeko.

Biomedikuntzara bueltatuz, bermatu beharra dago gaur egun hartzen ditugun sendagaiak seguruak direla. Gizakiok genomaren %95 partekatzen dugu arratoiekin. Txikiak dira eta, beste ugaztun batzuekin alderatuta, azkar ugaltzen dira. Gainera, antzerako organo eta gaixotasunak ditugu; izan ere,





Laborategiko arratoi bat.

arratoiek ere asma, tuberkulosia eta gripea izaten dituzte. Animaliak erabiltzen ez dituzten teknikak motz gera daitezke helburu batzuetarako; izan ere, nola diseinatu ugaztun baten konplexutasuna duen teknikaren bat? Zelula kultiboak eta biomedikuntza konputazionala erabiltzen dira, baina animalien ikerketaren gehigarri bezala.

#### **Txakurrak eta primateak**

Txakurren eta primateen erabilerak aipamen berezia merezi duela uste dut; izan ere, kolokan jartzen dute gure moralak, gure lagunak direlako edota, primateen kasuan, gure antz izugarria dutelako. Gaur egun, ikerketarako erabiltzen diren animalien %0,2 dira txakurrak edo gizakiak ez diren primateak. Moral kontuak

tarteko, zientzialarientzat ere ez da batere erraza izaki horiekin lan egitea, eta animalia horiekin ikertzea debekatzea ere proposatu izan da. Azken urteotan, izugarri jaitsi da erabilera hori. Egia da txakurrak eta primateak beste aukerarik ez dagoenean bakarrik erabiltzen direla –duen kostuagatik bada ere–, eta ezinbestekoak izan direla arlo batzuetan. Adibidez, txakurrak erabiltzea ezinbestekoa da Sanfilippo sindromearen zein diabetesaren ikerkuntzan.

### **BESTE AUKERARIK EZA JARTZEN DUTE KOLOKAN ANIMALIAK ERABILTZEAREN KONTRAKO TALDEEK**

Primateak, berriz, gakoa izan dira garuneko alterazioen, jarrera arazoan edota ebolaren kontrako txertoa aurkitzeko ikerkuntzan.

#### **Zilegitasuna eztabaidagai**

Animaliak erabiltzearen kontrako taldeen argumentuen artean beste aukerarik eza jartzen da kolokan. Hau da, ulergaitza da hainbeste ezagupen edukita animaliak ordezkatzeko aukerarik ez egotea. Gainera, animaliak erabiltzea debekatzen ez den bitartean ez dela beste aukerarik garatuko uste da.

Beste argudioetako bat kostua da; farmako baten garapena garestia bada, animaliekin ikertzeak are gehiago igotzen du kontsumitzaileak ordaindu beharreko prezioa.

Ondorioz, animaliak erabiltzea zilegi da? Beraiek baino gehiago garelako uste dugulako erabiltzen ditugu edo benetan beharrezko delako? Bestelako aukera berriak noizko? Izugarri zaila izan arren lortuko dugu inoiz animaliarik gabe ikerkuntza fidagarri eta segurua egitea?

Nork daki! Duela mende bat pentsaezina zen ilargira bidaiatzea. Orain dela gutxi, lehenengoz ikusi dugu zulo beltz baten benetako irudia. Zergatik ez animaliak errespetatzen eta erabiltzen ez dituen mundu bat? ■■■

# Tartufo jatetxean askotariko entsaladak



**JON ANDER EIZAGIRRE** SUKALDEBURUA  
ARGAZKIAK: AMAIA TXINTXURRETA

Udaberrian, bezero asko eta asko izaten dira gurean askotariko entsaladak dastatzen dituztenak. Eguraldi hobearekin, potaje gutxiago jartzen dugu, normalean, eta hainbat eratako entsaladak gehitu. Esaterako, ondorengo orrian datorren bakailao-entsalada hainbat modutara aurkeztuta eskaintzen dugu eguneko menuan, menu kontzertatuan eta kartan. Oso

harrera ona izaten du, gainera, bezeroen artean. Baina, horrez gain, badauzkagu bestelako entsalada batzuk ere: txangurruarena; ahatearena; eta Tartufo entsalada epela. Azken horrek osagai hauek eramaten ditu, besteak beste: letxuga, gulak, perretxikoak, ganboi bat eta ozpin-olioa.

## Parrila ere bai

Dagoeneko esperientzia daukagu parrilarekin ere eta asteburuetan parrila eskaintza handia izaten dugu gurean.

Parrilak ematen dion zapore berezi hori dastatzeko aukera ematen dugu Tartufon.

## Terraza ederrekin

Asteburuetan terrazak ia beteta izaten ditugu; eguraldi ona egiten duenetan, behintzat. Bazkariak ematen ditugu horietan, eta jendeak eskertzen du kanpoan jatea. Aterpea daukan terraza bat ere badaukagu eta teilatua berritu egin diogu, gainera.

Beraz, etor zaitezte, nahi duzuenean, Tartufora. ■■■

## Tartufo jatetxea

- **Helbidea:** San Juan auzoa 35, Bergara.
- **Webgunea:** Tartufobergara.com.
- **Telefonoa:** 620 773 383 edo 943 76 35 51.
- **Facebook:** Tartufo.Jatetxea.
- **Posta elektronikoa:** tartufo@tartufobergara.com



**TARTUFO JATETXEARI ESKER**  
IRABAZI BI LAGUNENDAKO OTORDUA. HARTU PARTE!



943 25 05 05



kluba@goiena.eus



KLUBA Jatetxea [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.



## Bakailao-entsalada

### Osagaiak (2 lagunendako)

- Askotariko letxugak
- Patata, 1
- Bakailaoa, 100 g
- Piper gorria
- Piper berdea
- Piper horia
- Tipulina
- Pomodoro tomatea
- Oliba beltzak
- Modena ozpina

#### Ozpin-oliorako:

- Piper gorria
- Piper berdea
- Tipulina
- Olioa
- Ozpina
- Gatza

### Prestaketa

1. Patata zuritu, egosi eta xaflatan ebaki.
2. Bakailaoa konfitatu oliba-oliotan.
3. Piperrak zatitu eta sutan jarri, biguntzen direnera arte.
4. Plateraren muntaia egiteko, plater batean jarri aro bat eta barruan lehenengo geruzan jarri askotariko letxugak. Gainetik patata egosi xaflak. Gero, bakailaoa xerratan. Ostean, berriro patata. Gainean piperrak, eta bukatzeko, bakailaoa. Kendu aroa.
5. Ozpin-olioa egiteko, xehatu piper gorri eta berde apur bat eta tipulina eta gero, elkartu. Gehitu olio, ozpina eta gatza. Irabiatu eta bota entsaladari gainetik.
6. Bakailaoaren gainean beste apaingarri hauek ere jar daitezke: tipulina, pomodoro tomatea eta oliba beltzak.
7. Gehitu modena ozpina eta jateko prest egongo da.

Zailtasuna: ●●●●●

## Aurreko zozketako irabazlea: Joanes Urrate Sanchez (Oñati)

Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestionatzea. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezeztatzeko, helbide honetara idatzita: [kluba@goiena.eus](mailto:kluba@goiena.eus)

**goienakluba**<sup>“</sup>  
Euskara irabazle, denok irabazle!

# Estanpatuen artean nagusi

TANTOAK

## ARANTZAZU EZKIBEL GALDOS

ARGAZKIAK: @PIPI\_HORMAECHEA

Askotariko estanpatuak tendentzia izango dira: *animal print* eta loredun jantziak baino indar handiagoaz sartu dira udaberrian tantodun jantziak.

Tantodun estanpatuak edonon ikusteko aukera egongo da; izan daitezke prakak, kamisetak, gonak, jakak... eta osagarriak ere tantodunak izango dira udaberrian.

### Tantoaren tamaina

Hainbat tamainakoak izan daitezke tantoak, baina gehien ikusiko direnak *midi* tamainakoak edo txikiak izango dira.

Hainbat diseinatzaile famaturen desfileetan ikusi izan dira tantodun diseinuak. Eta tantoak edozerekin konbinatuta, gainera; adibidez, Carolina Herrerak tantoak eta loreak konbinatu zituen 2019ko udaberriko desfilean.

### Fantasia duen estanpatua

"Udaberrirako egokia den estanpatua da tantoduna", azaldu du Oñatiko Chic dendako arduradun Irma Juaristik. "Konbinatzeko samurrak diren jantziak dira tantodunak; freskoak dira, eta, era berean, fantasia apur bat duen estanpatua dela esango nuke", gaineratu du Juaristik. Horrez gain, jende gehienari ondo dagokion jantzi mota dela

dio; izan ere, bai gazteek eta baita nagusiagoek ere jantzi dezaketen estanpatua da.

"Tantodun jantzi baten alde egitea apustu segurua dela esango nuke, eta, aldi berean, badu nolabaiteko berritasuna", gaineratu du Juaristik.

### Zetazko blusak

*Look* egoki eta berritzaile baten alde egiterakoan, Juaristik zetazko blusa aukeratzea proposatzen du: "Tantodun zetazko blusa, edo biskosazkoa... jantzi egokiak izan daitezke. Fin geratzen dira". Zetazko blusa bat jantziz gero, *look*-a osatu daiteke praka zuri edo beix batzuekin. Modu horretan, "ukitu fina" emango zaio janzkerari. Eguraldiaren arabera, oinetakoak izan daitezke irekiak, sandaliak, eta bota

motz batzuekin osatu daiteke *look* osoa.

### Koloreak: nudea eta pastela

Neguan indar handiz sartu diren okrea, laranja... tonu horiek jarraitu egingo dute udaberrian ere. Horiei kolore horia ere gehituko zaie.

Hala ere, udaberrian beti joera izaten diren eta samur konbina daitezkeen pastel koloreak nagusi izango dira sasoi honetan. Pastel kolore horiei *nude* kolorea ere gehituko zaie.

Tantodun gona bat izanez gero, alpagata batzuekin osatu daiteke *outfit*-a. Eta, eguraldia ez bada alpagatak jantzeko modukoa, antezko bota batzuk izango dira egokienak. Garrantzia gonari eman gura bazaio, oinarrizko kamiseta batekin jantzi. ■■■

## 'Midi' luzera duen tantodun gona

Udaberrian indarrez sartu da *midi* luzera duen tantodun gona. Gona horiek pastel kolorekoak izatea da joera nagusia sare sozialetan. *Influencer* famatuen artean frantses kutsua duen look hori gailendu da; izan ere, urte sasoi honetarako oso egokiak diren jantziak dira. Pastel koloreak, gainera, samur konbina daitezke.



Berde koloreko gona.





Tantodun soinekoa, botoiduna.

# Bide luzea eginda

ASIER BLAZQUEZ MOTO-KROS GIDARIA

## XABI GOROSTIDI

ARGAZKIAK: ASIER BLAZQUEZ

Asier Blazquez bergararrak lan handia egin du bere pasioaren alde: moto-krosa. Musakolako moto-kros zirkuitua desagertu zenean, umezurtz geratu ziren kirol horren maitaleak, baina duela bederatzi urtetik hona badago Bergaran horretan aritzeko zirkuitu bat, eta Blazquez bera da zirkuitu hori erabilgarri egotearen arduradunetako bat. "Une honetan, hilean bi domekatan erabiltzeko akordioa daukagu eginda. Baina hemengo eguraldia nolako den jakinda, askotan, ezin gaitezke hilean birritan ibili. Gipuzkoan dagoen zirkuitu bakarra da; beraz, horrekin konformatu behar dugu. Bizkai aldean badaude gehiago, eta horiek aste bitartean ere egoten dira erabilgarri. Ez dute alboan etxebizitzarik, eta, inor ez molestatzean, gehiagotan erabili dezakete. Gure kasuan, etxebizitza bat eta garbigunea ditugu alboan. Hala ere, daukagunarekin pozik gaude, eta konformatzen gara".

Zirkuitua erabiltzeko eskaera formalak egiteko, Bergarako Blockbass moto-kluba sortu zuten. Blazquez hor egon da hasieratik, baina pixkanaka ardura horiek gazteengan uzteko asmoa du. "Azken bi urteetan ez naiz hain aktibo izan, batez ere, amaren

heriotzaren eraginez. Baina gaur egun badaude gogoz dauden gazteak, eta horiek izango dira hemendik aurrera gidaritza hartuko dutenak. Urtean bi proba antolatu izan ditugu, moto-kroseko proba bat eta cross countryko beste bat. Azkena duela urte erdi egin genuen".

### 14 urte zituenetik lehian

Une honetan 42 urte ditu Blazquezek, baina 14 urte zituela hartu zuen lehen motorra, eta hartu eta segituan

hasi zen lehiatzen. "Hasieran, beldurra ematen zidan motorra hartzeak. Aitari betidanik gustatu zaizkio, eta txiki-txikia nintzenetik hasi zen pasio hori niri itsasten. Karrerak ikustea, eta abar asko gustatzen zitzaidan, baina motorra hartzeko pausoa ez nuen ematen, beldurragatik. Hala ere, beldur hori kendu nuen, eta ez da inoiz itzuli".

Junior eta senior mailetan Euskadiko hirugarren izatea lortu izan du, eta beteranoetan bigarren ere bai. ■■■

## Espainiako klasikoan txapelketara

Azkenaldian lehiatzearena alboratu ostean, maiatzaren 19an sentsazioak berreskuratuko ditu Blazquezek. Irudiko KTM motorrarekin Espainiako klasikoan txapelketako proba batean hartuko

du parte; Gueñesen izango da, eta Blazquez Super Evo modalitatean lehiatuko da, 1990 eta 1996 urte artean egindako motorren kategorian. "Probatzera joango naiz, eta, ondo badoa, datorren urtean jarraipena emango diot".



1996ko KTM horrekin arituko da Blazquez.





Asier Blazquezen salto ikusgarria, Kantabrian egindako proba batean.



Blazquez, motorra lurreratzeko prest.



Hodei eta Unai semeak motor gainean jarrita.

# Sergio Crespo

---

## ARANTZAZU EZKIBEL

ARGAZKIAK: AITOR AGIRIANO, S.C.

---

Argazkilaritzari buruzko bilduma bat egin zuen Sergio Crespo arrasatearrak nerabezaroan, eta ordutik kamera bat eskuetan du Crespok.

### **Bilduma egin, eta gurasoei kamera bat eskatu. Horrela hasi zinen?**

Bai; 15 bat urte nituenean egin nuen bilduma. Lehenengo alea egin eta jarraitu egin nuen, argazkilaritzarekiko jakin-mina pizteraino. Gurasoek kamera konpaktu bat erosi zidaten.

### **Eta, ordutik, kamerarekin joaten zara leku guztietara?**

Niretzat, zaletasuna da argazkilaritza; baina bai, ahal dudan guztietan egiten ditut argazkiak.

### **Nola ikasi duzu?**

Arrasateko Artgazki taldeko kide naiz eta hainbat ikastaro jaso ditut. Horrez gainera, modu autodidaktan ibili naiz ikasten. Esan behar da argazkilaritzari buruz ikasteko modu onena praktika dela: kalera irten behar da eta argazkiak egin. Horrela ikasten duzu argia nondik sartzen den, nola erabili argia...

### **Makroargazkilaritza egitea duzu gustuko?**

Bai. Ez dakit estilo propiorik dudan; lehen esan bezala, niretzako, argazkilaritza zaletasuna da; hala ere, makroargazkilaritza egitea asko gustatzen zait. Loreei egiten



dizkiet argazkiak. Horrez gainera, bi ume txiki ditut eta horiei erretratuak egiten ere ibiltzen naiz.

### **Zein urtaro duzu gustuko argazkiak egiteko?**

Udazkena eta udaberria gustatzen zaizkit gehien. Udazkenak ematen dituen koloreak oso politak izaten dira; eta udaberriean, aldiz, loreei argazkiak egiteko aukera polita egoten da.

### **Eta baduzu txoko kuttunik?**

Gaztelugatxe ingurua asko gustatzen zait, eta, horrez gain, gustatuko litzaidake Zumaia inguruko flyschan ibiltzea. Bestalde, baditut egunen batean bisitatu gurako nituzkeen tokiak: Islandia,

fiordoak... Argazkiak egiteko toki politak izan daitezke horiek.




### **Artgazki taldeak antolatutako San Juan lehiaketan, argazki originalenaren saria irabazi zenuen iaz.**

*Suaren magia* argazkiarekin irabazi nuen argazki originalenaren saria. Irudian bi dantzariren profilak daude, atzean San Juan sua dutela.

### **Nola erabiltzen dituzu teknologia berriak?**

Erabiltzen ditut. Argazkiekin ibiltzeko hainbat programa daude. Balio dute norberak duen estiloa edo ukitua emateko argazkiari. Argia ukitu daiteke, enkoadraketa zuzendu... ■■■





# Ikonografia, emozio iturri

DANIEL GARCIA VALERO ARGAZKILARIA ETA LIBURU-JARTZAILEA

## AITZIBER ARANBURUZABALA

ARGAZKIAK: EKAITZ ZILARMENDI ETA  
KATIA MADINA

Donostiara soinu ikasketak egitera joan, eta argazkilaritzak harrapatu zuen han Daniel Garcia Valero (Bergara, 1986). "Adierazteko tresna bat behar nuela sentitzen nuen, eta argazkilaritzarekin probatzea pentsatu nuen. Zorte handia izan zen Jon Cazenave eskarmentuko argazkilari donostiarrarekin eta ikaskide izan nituen askorekin topo egitea; argazkilaritza artistikoan murgiltzeko aukera eman zidan Cazenavek".

Argazkien bitartez emozioak adierazteko harra bete-betean sartu zitzaion bergarakoari, eta eskolan ikasi zuenari argazki liburu forma eman zion, *No tocar* izeneko lana argitaratuta. "Ale kopuru txikia atera nuen, baina guztiak saltzea lortu nuen. Erakusketa bat ere egin nuen. Eguneroko pertsonal bat da. Ikuspegi emozionaletik Donostian ateratako argazkiak ziren, horien artean, pertsona batekin izan nuen harremana irudikatuz".

### Japoniara eta Australiara

Donostian zazpi urte egin ostean, urtebeterako Japoniara joan zen; argazkilaritzagatik baino gehiago, japoniera ikastea izan zen bidaiaren helburua. Han zegoela, Australiara joateko proposatu



Daniel Garcia Valero bergararra.

zioten, eta, pare bat urtetan zalantzan egon eta gero, Sidneyrako bidea hartu zuen.

Argazkilaritza toki handiagoa hartuaz joan zen Garciaren egunerokotasunean, zaletasuna baino gehiago izan zitekeela konturatu zen, eta hala hasi zen *Australian Fireworks* proiektua sortzen. "Hiriaren erdi-erdian dagoen Chinatown auzoan asko ibiltzen nintzen. Interesgarria da oso. Irla moduko bat da. Ez da Txina, baina ezta Sidney ere; Asiako herrialde askotako gizartea zen. Ikonografia oso

## ARGAZKILARITZA ARTISTIKOAN BERE BIDEA EGITEN DIHARDU BERGARARRAK

tresna interesgarria iruditzen zait gizarte bat erretratatzeko. Herrialde edo gizarte ezberdinak azter ditzaket ikonografiarekin; hau da, jende multzoa erakutsi barik, beste ezaugarri batzuen bitartez. Hala osatu nuen Australiako lana, Chinatown auzotik abiatu eta hiriko auzo ezberdinetaraino hurbilduta".

Gai baten inguruan argazki artistikoak lantzea du Garciak gustuko, erakusteari baino, adierazteari garrantzi handiagoa emanda: "Argazkilaritza hizkuntza bat dela diote batzuek, baina ez nator horrekin bat; argazkilaritzak ez du hizkuntza baten moduan funtzionatzen. Hitz egiten dugunean elkar ulertzen dugu hainbat kode ditugulako eta horiek deszifratzen dakigulako; argazkiek, berriz, emozioak aktibatzen dituzte. Argazki deskriptiboak izan arren, emozioak adierazten dituzte".

### 'V de Bergara'

Denbora luzeagoan geratu gura zuen Australian, baina etxera bueltatu behar izan zuen. Jaioterrira itzuli zenean, argazki kamera hartu eta bere herriari "bere estiloan" argazkiak ateratzen hasi zen, eta hala jaio zen *V de Bergara* proiektua: "Denbora-pasa moduan hasi nintzen, bestelako asmo barik Bergarako ikonografia erretratatzeko, eta, azkenean,



Oñatiko Argi festibalean egin zuen Garciak lehen *bookjockey* edo liburu-jartze saioa.

nire jaioterria nire estiloan jaso dut proiektu berrian".

Bilduma hori Oñatiko Argi argazki festibalean erakutsi dute apirilean, modu bitxian, gainera, antolatzaileek proposatu zioten *bookjockey* edo liburu-jartze saioan. "Asko gustatu zitzaidan erronka, eta baiezkoa eman nien, sekula horrelakorik egin ez nuen arren. Argazki-liburuak erakusteko oso modu esperimental da. *V de Bergara* proiektua gustuko ditudan autoreekin eta argazki-liburuekin nahastu nuen, ordu laurden inguruko saioan".

Liburu-jartze saioak 2012ko azaroan Madrilgo Blankpaper eskolan jaio zirela kontatu du: "Azken hamarkadetan autore eta ideia berrien sorlekua izan da eskola hori. Djek egiten duten antzerako saioa da, baina musika edo diskoak nahastu

beharrean, argazki-liburuak eta argazkiak; eta nahasketa edo muntaia hori pantaila batean ikusten du publikoak".

#### Proiektuak saltzen ikasten

Gaur egun, Madrilen bizi da; Lens eskolan dabil, *Autore argazkilaritzaren garapena*-ri buruzko graduondokoa egiten, gustura. "Falta zitzaidan arloa ari naiz betetzen. Ezinbestekoa dela uste dut sortzen ditudan proiektuak saltzen ikastea, eta arlo hori ari naiz lantzen orain. Eskolan, gainera, Jordi Socias

### 'V DE BERGARA' LAN BERRIA OÑATIKO ARGİ FESTIBALEAN AURKEZTU ZUEN APIRILEAN

eskarmentu handia duen argazkilariarekin nabil lanean, bere estudioan. Urte askoan *El País* egunkariko argazkilaria izan zen, eta argazki agentzia bat ere sortu zuen. Sociasek urteetan sortu duen argazki-artxiboa osatzea eta argazkiak moldatzea da nire lana".

Argazkilaritzarekin lotutako edozein lanetan pozik dagoela dio, nahiz eta aitortzen duen proiektu pertsonalak egitea dela, bereziki, bere nahia. Ari da bere bidea egiten; aurreko astean, Bartzelonako Art Photo jaialdian aurkeztu zuen *V de Bergara* lana, eta toki gehiagotara bidaltzeko asmoa du; eta, horrez gain, *Australian Fireworks* proiektua argazki-liburu bihurtu gura du.

Orain arte egin dituen lanak *Danielgvalero.com* atarian ditu ikusgai. ■

# Existenziarekin aurrez aurre



## Goragalea

**Egilea:** Jean-Paul Sartre

**Itzultzailea:** Monika Etxebarria

**Argitaratzailea:** Elkar eta Alberdania

**Argitaratze urtea:** 2003

**Generoa:** Eleberria



### JUANMARI AGIRREURRETA

FRANTSES IRAKASLEA

Zalantzarik gabe, *La Nausée* (1938) Jean-Paul Sartreren obra ezagunenetakoa da, ezagunena ez bada. Zorionez, eleberri hori euskaraz badaukagu, *Goragalea* (Elkar eta Alberdania, 2003). Monika Etxebarria itzultzaileak euskaratu zuen *Literatura Unibertsala* bilduman.

Etxebarriak hitzaurrean adierazten duenez, *Goragalea* eleberri filosofikoa da. Halatan, obra hori *Sartrek bere pentsaera filosofikoaren azalpen literario baten gisa irudikatu zuen*. Eleberri horrek *existentzialismo* izenaz ezagutuko zen filosofiaren abiapuntua eta lehen zantzuak zekartzan. Urte batzuk geroago, Sartrek existentzialismoaren oinarri teorikoak ezarriko zituen tratatu filosofiko mardul batekin: *Izatea eta ezereza* (1943).

**Sartre** idazlea eta filosofoa zen, literatur lan ugari eta obra teorikoak idatzi zituen. Hori horrela, bere eleberrietan edota

antzerki-lanetan filosofoaren luma nabari da: *Aipagarria da zenbait pasartetan filosofo gisa ideiak argi azaltzeko duen gaitasuna*. Hein berean, obra teorikoetan Sartre maisua da adibide literarioen erabileran eta idaztankan eta diskurtso-baliabideetan. Horrela, beraz, *Goragalea* kontakizun bat da berez, narrazio bat, Bouville hirian leku hartzen duena; ordea, idazleak bertan bere pentsaera filosofikoa harilkatzen du.

**Itzultzaileak** zenbait gako ematen dizkigu hitzaurrean eleberria hobeto kokatzeko eta ulertzeko. Horrela, eleberriaren kutsu biografikoa aipatzen du, zera, sarritan idazleak bere ingurutik hartutakoak dirudite, esaterako, nobelaren dekoratu

**ELEBERRI HORREK 'EXISTENZIALISMO' IZENAZ EZAGUTUKO ZEN FILOSOFIAREN ABIAPUNTUA DAKAR**

hitsak, pertsonaiak, protagonistaren bakardadeak eta atsekabeak, eta abar. Halaber, aipatzen du idazle askoren oihartzuna atzeman daitekeela eta zenbait estilo literario baliatzen dituela. Eta jakina, mezu filosofikoa ere aipatzen du, *kontingentzia* kontzeptuak laburbilduko lukeena. Nolabait esateko, errealitatea ulertzeko berezko oinarri edo zentzu jakin baten faltan, euskarririk gabe, gizakia gelditzen da bere existenziarekin aurrez aurre.

**Eleberriari** paragrafo labur batekin ematen zaio hasiera, horra lehen esaldia: *Argitaratzaileen oharra. Koaderno hauek Antoine Roquentinen paperen artean aurkitu ziren. Ezer aldatu gabe eman ditugu argitara*. Beraz, liburua eguneroko bat da, Antoine Roquentin pertsonaia nagusiak lehen pertsonan kontatzen duena, bere lehen gogoetak hala salatzen duenez: *Onena gertaerak egunegun idaztea litzateke. Eguneroko bat gitea, haiek argi ikusteko...*



# Goiena Klubaren txokoa

## Goiena Klubeko maiatzeko sariak!



### Ebook reader

Parte hartzeko sariaren izena: Ebook



#### PARTE HARTZEKO:

Posta elektronikoz: [kluba@goiena.eus](mailto:kluba@goiena.eus)

Whatsapp: KLUBA "sariaren izena"

[bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakia.

Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa.

Indarrez dagoen L.O.P.I 15/1999 legearen arabera, jakingarritasun dugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuen Itxotegi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketan honen helburu bakarra da indarrez dagoen sariaren gestioa.

Eskuak lezago duz daturatzen sartuko, hasi zuzentako edo ezustatzeko, helbide honetara idatziz: [kluba@goiena.eus](mailto:kluba@goiena.eus)



#### Sarrerak

Arrikutz kobak bisitatzeko.

Parte hartzeko sariaren izena: Arrikutz



#### Otarrea

Bidezko merkataritzako produktuak.

Parte hartzeko sariaren izena: Otarra



## Irabazi bi lagunendako sarrerak

#### Arrasateko Udalarari esker

"The Electric Alley" kontzerturako sarrerak ditugu.

Arrasate | Amaia Antzokia | Maiatzaren 18an | 20:00etan

#### PARTE HARTZEKO: MAIATZAREN 16RA ARTE

Posta elektronikoz: [kluba@goiena.eus](mailto:kluba@goiena.eus) Whatsapp: KLUBA "Kontzertua"  
[bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakia. Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa.

Indarrez dagoen L.O.P.I 15/1999 legearen arabera, jakingarritasun dugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuen Itxotegi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketan honen helburu bakarra da indarrez dagoen sariaren gestioa.

Eskuak lezago duz daturatzen sartuko, hasi zuzentako edo ezustatzeko, helbide honetara idatziz: [kluba@goiena.eus](mailto:kluba@goiena.eus)



Puntua aldizkaria jasotzeko, zozketetan parte hartzeko eta txartelaren abantailaz gozatzeko...



Bazkidegu orain 2019rako  
56€ ordainduta  
Deitu: 943 25 05 05  
[kluba@goiena.eus](mailto:kluba@goiena.eus)

goienakluba

# Auzotarren zerbitzura

ESKORIATZAKO ELORRETA ERROTA

---

## MIREIA BIKUÑA

ARGAZKIAK: M.B.

---

Etxebizitza berriak egiten hasi ziren arte, Ambrosio Abasolo eta bere familia bizi izan ziren Eskoriatzako Elorreta baserrian. Bolibar errekaaren alboko etxean, alegia. Etxeak egiten hasi zirenean, ordea, XIX.

mendetik zutik egondako errota bota egin behar izan zuten.

Udalak, baina, errota berriro

eraikitzea eskatu zuen.

"Udalaren eskumenekoa da Elorregi. Abasolotarrek errotako lanak utzi ostean, Udalak berreraiki egin zuen, eta egun, bisita gidatuak egiten ditugu", esan du Eneritz Zubia teknikariak.

### Auzotarrendako


Ambrosio Abasolo Elorreta baserrian jaio zen. Bere aitona errentan bizi zen han.

"Ambrosiok askotan esan izan digu berak baino gehiago, aitak eta bereziki aitona erabili zutela errota, inguruko auzotarrei zerbitzua emateko", dio Zubiak.

Izan ere, Bolibarko baserritarrek eta inguruko auzoetako bizilagunek erabiltzen zuten errota. Artoa, garia... eramaten zuten han ehotzeko. Handik lortutako irina zakuetan sartzen zuten abasolotarrek, eta jabeek bueltan eramaten zuten etxera, galbahean pasatzeko. Funtzio hori eduki zuen Elorreta



lraztontzia.



Erratzak.



Eskorga.

errotak, 1962ra arte. Eskaerak txikitzen joan ziren heinean, errotaren erabilera ere txikitzen joan zen. "Errentan egon ziren urte askoan. Ostean, Ambrosioren aitona errota erosi zion Hidalgo jauntxoari. Familiakoa zela, erre egin zen, 1927an, eta hura ordezkatzeko berria egin zuten", dio.

### Bi harri handi

Errotak egun duen kokalekua ez da jatorrizkoa. Etxeak eraikitzerakoan, atzeratu egin zuten. Baina barruan dagoen tresneria bai da jatorrizkoa. Estoldara heltzen da ura errekatik, eta erruberak mugitzen ditu. Erruberetara lotuta dagoen ardatzak ipintzen ditu martxan ehotzeko bi harriak. Bi harri horien artean egoten ziren aleak.

"Hareharritzkoak edo kareharritzkoak izaten ziren harriak, nahiz eta gogorrenak, iraupenarengatik, sukarrizkoak izaten ziren. Izan ere, harriek hainbat pitzadura zituzten, aleak fintzeko. Bada, bi harriak elkarren kontra jotzean leundu egiten ziren, eta lekutik atera behar izaten zituzten, berriro pitzadurak ondo markatzeko".

### Beste errota batzuk

Abasolotarren errotarekin batera, beste hiru ere baziren Eskoriatzan: Marulandan, Gaztañaduin eta Bolibarren. Laurak daude zutik, baina ez daude martxan. ■■■



Elorreta errotako bi harriak, eta horien pitzadurak konpondu ahal izateko harriak kentzeko erabilitako tresneria.



Irazontzia.



Ura estoldan sartzen.



Errotaren kanpoko aldea.



# Komunikazio politikoaz



JON IRIZAR

**E**z, ez naiz komunikazio politikoan aditua, ezta gutxiago ere. Doktoretza tesi batek ere ez luke askatuko buruan dudak korapiloa; pentsa orri huts batean xehatu litekeena. Gogoeta baterako balio badizu, gaitz erdi.

**Demokraziaren** goitizenean, 28 egunen bueltan birritan izango dugu hautetsontzira boto-paperak askatzeko abagunea. Baina norbanako orok egindako hautuak baino gehiago, norbanako orori hautu hori egitera bultzatutako arrazoiek zer pentsatua sorrarazten didate. Modu kontziente edo inkontzientean, erabaki irmoarekin edo zalantzaraz josita, hautesle-eroldan azaltzen diren herritar beste arrazoi egon beharko lirateke teorian. Praktikan, baina, ideiez eta ideologiez haratago doazen faktoreak aztertzea zilegi dela deritzot. Zilegi, eta ia beharrezko, bestela zaila litzateke eta emaitzen arrazoiketa etiko eta koherente batera iristea. Eta zaku honetan kokatuko nuke gaur egungo komunikazio politikoa.

**Informazioa** une oroko aukera eta hautua bilakatu den garaiotan, amaitu zaizkigu bi asteko kanpaina elektoralak. Politikariak etengabe daude iritzi publikoaren jomugan, eta, zer esanik ez, politikariak etengabe ari dira iritzi publikoa



ATRESMEDIA / PMK

asaldatu, kontrolatu eta bideratu nahian. Ez du axola alboko herria probintziaz aldatu eta oharkabean igaro den ustea izatea, baldin eta azpimarratzeko porrotaren gauean edozein hortzetako pasta iragarkitarako balioko lukeen irribarrea erakusteko gai bazara; ez du axola horizontaltasunaren erresuman barne botere arazoak izatea, baldin eta etiketa-jantzi artean jertse soil batekin austeritate irudikatzen gai bazara; ez du axola elkarren jarraian bi ideia lotzeko gai ez izatea, baldin eta diskurtsoa emaitzean aurrez ondo entseatutako garaipen keinua egiteko gai bazara. Ez

**IDEIEK ETA IDEOLOGIAK BAINO, AHOTS TONUAK, KEINUAK... GARRANTZI HANDIAGOA DUTE POLITIKAN GAUR EGUN**

du axola edukiak, baldin eta komunikazio formen bitartez unean uneko helburu publikoaren beharretara egokitzen gai bazara.

**Idealismo** zein errealismo gordinen defentsa alboratu, eta komunikazio faktore hutsaletara bidean da, nire aburuz, politika. Erasotzailearen eta erasotuaren jolasa baliatuz, ideiek eta ideologiek baino, hitzek, ahots tonuak, keinuak, arropak edo jarritako aurpegiak garrantzi handiagoa hartu duten etengabeko guda. Teoriak salduz, ondo aztertu eta neurtutako praktikaren eraginez lortutako boto-paper kopuruen gorabehera jolasa.

**Gogoan** dut oraindik telebista saio batean Jose Luis Kortari entzundakoa: "Nik gauza bat pentsatzen dut, beste bat esan, eta hirugarren bat egin". Ez al da, ba, komunikazio politikoa jolas berean erori? ■





### Nokia 9 PureView

*Mugikor adimenduna. Nokia. 599 euro.*

Atzeko kamerak ZEISS optikako 5 sentsoare ditu. Kopuru hori duen lehen smartphonea da. Guztiek 12 megapixel dituzte; bi RGB dira, kolore kalitate hobea eskaintzeko eta beste hirurak kolorebakarrak dira, argitasuna lehenetsiz. Mugikorrak memoria handia eskaintzen du eta neurri handikoa da; 5,99 hazbeteko Oled pantaila dakar.

### TravelMate X514-51

*Ordenagailu eramangarria. Acer. 1.050 euro.*

Lanerako pentsatuta dagoen ordenagailua da honakoa. Neurriei dagokienez 329 mm × 228 mm × 14.9 mm ditu eta 980 gramo pisatzen ditu, Acer markaren eramangarri finena eta arinena delarik. Pantailak 14 hazbeteko neurria du. Intel Core i7 prozesatzailea dakar eta 16 GB-ko RAMa. Bateriak 10 ordu arte iraun dezake.

### AirPods

*Kable gabeko aurikularrak. Apple. 179 euro.*

Apple-en kable gabeko aurikularren hobekuntza azpimarragarriena haririk gabeko karga da, estutxearen bidez. Karga mota horrekin bateriak 24 ordu iraun ditzake. Hala ere, karga mota hori soilik 229 euroko modeloak dakar. Bestalde, Bluetooth 5.0. konexio motarekin erabili daitezke, gailuaren autonomia hobetuz.

# Zintzilikarioa itsasoak utzitako egurrekin



**EGILEA:** TXATXILIPURDI  
**ARGAZKIAK:** TXATXILIPURDI

**ARGAZKIETAN:**

*AIERT BERISTAIN, XUBAN BERISTAIN,  
XANET ARANBURU ETA MALI JUARISTI.*

Hondartzara egindako txangoak aukera bikaina dira eskulanak egiteko materiala biltzeko. Harriak, itsasoak ekarritako hainbat material... Zenbaki honetan, itsasoak landu eta hondartzan utzi dituen makilekin sortzera gonbidatu nahi zaituztegu.

## Materiala

- Hondartzan jasotako makilak.
- Margoak.
- Zerra bat.
- Soka.
- Uztaitxoak.

## Urratsak


### 1. Jaso materiala hondartzan

Hondartzara egindako txango batean jaso itsasoak ekarritako makilak. Gustukoenak aukeratu eta, beharrezkoa bada, ebaki zerra baten laguntzarekin.

**2. Makilak margotu** Margoekin makilak apainduko ditugu. Irudimena erabilita norik bere gustuko formak egin ditzake.

**3. Uztaitxoak ipini** Makilak zintzilikatzeke metalezko uztaitxoak erabiliko ditugu. Egur zati bakoitzean bana sartu.


**4. Zintzilikarioa osatu** Soka erabilita zintzilikarioa osatuko dugu.





**Antonio Manuel Cerreduela Cerreduela**

Arrasate. 3,600 kilo. Maiatzaren 3a. Gurasoak: Judith eta Antonio Manuel. Argazkian, sehaskan lo.



**Izan Montoya Manso**

Oñati. 3,400 kilo. Maiatzaren 1a. Gurasoak: Angie eta Andres. Argazkian, Izan txikia, aitaren besoetan.

## Jaio da!

**Eman jaiotzen berri PUNTUA eta Interneten.  
Deitu 943 25 05 05 telefonora edo zatoz  
GOIENAREN egoitzara.**

Asteheneko 11:00ak arte jasotako jaiotzak bakarrik argitaratuko ditugu.  
Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.



**guraso.eus**

Gurasoen premiak asetzeko gunea

- Gurasotasunaren gaineko iritzi artikulak.
- Aisialdirako gomendioak. • Adituei elkarrizketak.





30 urte  
baino gehiago  
zure  
zerbitzura



**EGUZKIGRAF**  
inprimategia

liburuxkak  
jai egitarauak  
pegatinak  
kartelak  
txartelak  
etiketak  
errifak

Ondo ospatu  
Otala Zelai  
erronomia!!